

**Zeberio Xtrem  
BTT Mendi  
Bizikleta  
Martxea 2014  
bagilaren 8an**

11. orrialdea

**Alboka Eguna ospatuko da  
Zeberion bagilaren 7an**

Euskal Herritik eta kanpotik etorritako albokariak batuko dira egun horretan Zeberion. Maurizia Aldeiturriaga panderojole zeberioztarra eta Arteako Leon Bilbao albokariaren omenez plaka bat ipini eta udaletxe ondoko kantoia "Maurizia eta Leonen kantoia" izena ipiniko jako. **7. orrialdea**



**Aurtengo  
Lemoako  
Euskal Jaia  
hilaren 7an  
izango da**

13. orrialdea

TOKIKOM

**begitu**  
arratia ubide zeberio

**209**

2014ko bagilaren 3a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

# Urutxurtuk Posta txartelen bildumea jasoten dauan liburua kaleratu dau

Jon Urutxurtu zeanuriztarrak *Arratia posta txartelean* izenburuko liburua kaleratu dau. Guztira, 89 posta txartel aurkezten ditu Urutxurtuk, munduan zehar Arratiako parajeak eta bizimoduak erakutsi ebezanak eta XX. mendearen lehen erdian argitaratu ziranak.

Zaharrenen artean, Arratiako Tranbia erakusten dauana dago. Areatzako asiloaren postala 1926 urtearen ingurukoa da. Felipe Manterola argazkilaria zeanuriztarrak egindako 10 posta txartel be badagoz Urutxurturen bilduman eta publizidade posta txartelak be bai. Atzen horreen artean, aitatu behar dira Areatzako bainuetxeak eta Arteako Se-

minario Txikiak argitaratutakoak, baita Bizkaiko Foru Aldundiak auzo-eskolak ezagutera emoteko editatutakoak be.

Posta txartela, "gaur egun, Internet eta kultura digitalaren bidez izugarri hedatzen ari diran sare sozialen aurrekari" be badira, egilearen ustez. **8. eta 9. orrialdeak**



Lemoako posta txartela, Frantziara bialdua eta 1913ko posta marka daroana.

## ARRATIA

**1.500 lagun  
inguru Arratiatik  
Gure Esku  
Dagoren  
giza katera**



Hogeta bat autobus eta 100 kote baino gehiago joango dira Arratiatik bagilaren 8an Arakilera, Gure Esku Dago, erabagiteko eskubidearen aldeko dinamikeak, Durango eta Iruñea artean antolatutako giza katearen 99. km.a osotutako.

Autobusak 08:15ean urtengo dira eta puntualtasuna eskatuten dabe antolatzaile taldekoak. **6. orrialdea**

## IGORRE

**Igorreko jaiak**

Hilaren 6an, barikua, botako dabe txupina Igorren herriko jaiak hasikere emoteko. Honeek ospatutako 9 egunetako eta 60 ekitaldi inguruko jai egitaraua prestatu dabe jai batzordekoak. Kalejirak, lehiaketa gastronomikoak, kontzertuak, erromeriak, koadrilen arteko olinpiadak, kirol erakustaldi eta txapelketak... Herrikoak eta kanpotik etorritakoak ondo pasetako modua topauko dabe Igorren. Zeberioko Ermitabarri auzunean be jaiak ospatuko dabez. **5. orrialdea**

**Olaetxe**  
OPTIKA ZENTRUA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gitxitua
- Begiko tentsinoak
- Lentillen adaptazinoak
- Kiroletarako betaurrekoak

Ondo pasau Igorreko jaietan!!

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 · olaetxeoptika@hotmail.es

## ARRATIA

**Europako Legebiltzarrerako  
hauteskundeetako emoitzak**

Maiatzaren 25ean izan ziran Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak. Boto gehien lortu dabezan partiduak gurean EAJ-PNV (2.800) eta EH Bildu (2.744) izan dira. Hirugarrena PSE (170), laugarrena Podemos (160), bosgarrena PP (143) eta seigarrena IU (115). UPD eta VOXek be lortu dabe %1a gainditzea herri batzuetan. **6. orrialdea**

**Okindegia**  
+ Ke... PAN  
Etxean bertan egindako pastelak

<b>IGORRE</b> Lehendakari Agirre 11 94 656 65 52	<b>IGORRE</b> Sabino Arana 35 94 657 3898	<b>AREATZA</b> Goiko kalea 8 94 608 90 47
--	---	---

Igorreko jai zoriotsuak opa deusueguz!! Ondo pasau jaietan!

## ARRATIA ZURI-BALTZEAN

## JON MIKEL ARRATIA AGARRE (II)

Izen honen atzean nor ezkututzen ez eban argituten bere kanta bilduman, eta beste iturri batzutan edan beharra egon da, holan, 1.907an idatzita eta 1.908ko Euzkadi aldizkarian argitaratuta izenorde horregaz topatzen dogu bere lehen artikulua:

"Euzkadirako. Lenengo Agurra". Olerki baten ondoren bere asmoak adierazoten deuskuz: "Aurrerantziari, Jaungoikuak gura badau, izan leike noizean behin zelan-halango idazkunen batzuk euskeraz edo erderaz idatzia, Euzkadin bertan argitaratu dedizan, bere artezkaririk horretarako duinak dirala esaten badabez".

Bere artikulua 1.908ko eta 1.909ko aleetan jarraituten dauz baina 1.911n badago biografia

bat: "Biografia del Ilmo. Fray Nicolas de Armentia" 1.910ean idatzita eta egilearen izena honela idatzita, Atutxa eta Bustintza'tar Jon-Mikel, M.B.S. Gainera beste argibide bat emoten deusku "este nuevo Doctor en el Perú". Arratiak, Agarre, Atutxak eta Bustintzak, Dimara eroaten gaitue nor dan gure pertsonajea jakiteko, Geronimo Atutxa Agirre eta Bitori Bustintza Beobidieren semea, 1.877an Agarren jaioa. Ama gazterik hil zan eta aita osteria 1.882an Juana Frantziska Atutxa Galianogaz ezkondu zan. Lehen ezkontzatik Jon Mikel eta Domingo Atutxa Bustintza jaio ziran eta bigarren ezkontzatik Petra, Nikomedes, Pedro, Markos eta Regina Atutxa Atutxa.

Gure Jon Mikelek lehen ikasketak Diman egin ebazan eta hurrengoak Balmasedako klaretarren ikastetxean. Holan 1.902an abade egin zan. XIX. mendearen atzen urteetan Aranaren eta Azkueren ereintzari esker klaretar asko abertzale eta euskaltzale izango dira eta euren artean arratiarra. Holan 1.901ean, abuztuan, Bilboko Lenengo Euskal Lore Jolasak egin ziranean, Miguel Unamunok, Salamankako Errektore barriak, Arriaga Antzokian euskerearen etorkizunaren aurka esandakoak bere berbaldi ospetsuaren ondoren hasarre asko probokau ebazan eta erantzun gogorak eukiko dauz, Sabino Arana, Kirikiño eta beste euskaltzale askoren partetik. Hori zala eta, gure Mikelek, orduan, gaur ezagutzen doguzan lehenengo bertsoak idatziko dauz eta kontetan deusku

zelan izan zan: "(Erdelerian ikasleri) nintzala idatzi nebazan hiru-lau lerro, Unamuno barregarriaren kaltez barre egiteko neure aberkide ta

euskeldun batzuekin. Ohartu bedi, ez nengiala nik orduan Bilbotarra zala Aberriaren iraintzale hori".

**Iñaki Esparza**



## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**

**Bagilaren 2tik 8ra**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.

**Bagilaren 9tik 15era**

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

**Bagilaren 16tik 22ra**

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265****Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45eko.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

**Babesleak:**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Ainhoa Duñabeitia, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

**Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tirada:** 6.800 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Industrialdeako parkea

Igorreko herritar talde bat gara eta geure kezka adierazo gura dogu; nekazal inguru baten bizi arren, tristura handiz ikusten dogu zelan gure inguruko berdegune publiko urriak desagertzen doazen.

Gero eta gehiago lur urbanizatuak dira inguruan daukaguzanak, proiektu barriak dirala eta; eta kasu baten barri emon gura dogu, "industri" izenez ezagutzen dan parkearen erabiltzaileak eta auzokoak ohartarazoteko.

Badakigu jakin, kamioien aparkalekua arazoa dala aspalditik, eta ikusita Udalak zenbait ebatzi hartu dituala eta horreen arabera, erdigunean ez dagoan parke bakarrak kamioientzako leku barria izan beharko leukela ebatzi honen arabera...

Hori dala eta, urtenbide batzuk emon gurako geunkez, parke publikoa desagertu ez daiten eta auzokoak disfrutatuko mantentzen ahal izan daiten. Parkea erdigunetik kanpo estrategikoki kokatuta dago eta edadekoai zein gazteai aukerea emoten deutse bidegorri ondoko zelai berdeez disfrutatuko. Bidegorria Diman amaituten da eta han igerileku publikoak edo beste antzeko zerbaist egin leiteke

danok erabili ahal izateko eta ez kamioilari gitxi batzuek. Kamioientzako aparkaleku barria egin ezker, herrien arteko leku hau guztiz galduko litzateke. Lanok ingurumenari kalte handia egingo leuskioe, parke inguruan dagoan errekatxoari, batez be.

Horregaitik, parkearen aldeko talde bat sortu gura dogu, egunerokotasunetik urteten lagunduten deuskuen batzeako lekuak mantentzen egin behar dirala konzientzietako.

Nahiko geunke beste herritar batzuen moduan, geure berbea islatzen dauan idatzi honen bitartez, gure inguruko gertakari batzuk eza-gutzerara emoteko aukerea eukitea. Egungo kariak alde batera itxi barik, nahita Igorreko bazterrak basoz inguratuak egon, uste dogu gero eta toki urbanizatuagoen menpe bizitea aukera bat baino ez dala.

Horren harira, Udalak, egungo Garbe auzoan dagoan kamioien aparkalekua lekuz aldatzeko proiektua aurrera atera nahian dabilala jakin dogu. Horren orde, Industrialdean dagoan, gazte zein nagusien galekua dan, parke berdea kolpe batez desagertu arazoz. Udalaren aldetik hau egiteko arazoak, antza, batetik ekonomikoak dira: erreztasunagaitik ei da Industrialdeko parkean aparkaleku barria sortzea, (lurzorua Udala-

ren esku dago eta); eta bestetik, kamioientzako aparkaleku barria herri barrutik aldentzeko beharri-zanak behartu dauan ebatzia izan dala komentau dabe.

Baina galera ekonomikoa egon, egongo da. Industrialdeko parkean kokatuko dan kamioien aparkaleku barriaren aurrekontua oraindino onartu barik egon arren, badirudi ia milioe bat euro inguruko kostua izango dauala. Badakigu baita, kamioiak herritik aldentzeko gogoa danen agotan dagoan kontua dala, baina parkeak eta errekatoko inguruneak jasango dauan eraldaketa ez naturala gertatu ez daiten, beste aukera batzuk bultzatu gura doguz, esateko: Tarabusiko gunea kamioien aparkaleku bihurtzea. Gure aldetik aukeran, konsulta bat izateko beta euki beharko geunke, baga-goz eta herri kanpoan dagoan parke bakarra galdu gura ez dogunak.

### INDUSTRIALDEAKO PARKEAREN ALDEKO TALDEA

## Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:  
Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:  
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

## ERETXIA



### ARITZ ARRIZABALAGA Irakaslea

## Identidadea

Zer nazan edo zer ez nazan sarritan galdetu deutsat neure buruari. Baita zer garan edo zer ez garan be. Erantzunak arrapaladan jatortaz burura, baina bakar batek be ez nau asebetetzen.

Zer da identitatea? Nik badaukat agiri ofizial bat karteran txukun-txukun gordea (zuetako gehienok be izango dozuela imajinetan dot) nor nazan dinostana. Beti daroat aldean. Beraz, galdera hamaikagarrenez egin dodanean, atera egin dot. Behin eta barriz irakurri eta ez nau konbentziduten, ordea. Agiri horren arabera nire nitasun osoa, identitatea, izen bat, abizen bi, sexua, jaiotza data, jaioterria, bizilekua eta argazki bat dira. Al, eta zenbaki bat. Zenbakiak talde bateko partaide egiten nauala suposatzen dot. Agiria leidu ostean, hasikeran legez nago.

Non dagoz ni-a eta gu-a osatzen daben beste ezaugarri guztiak? Non ni-ago eta gu-ago egiten gaituen ezaugarriak?

Nortasunak berezkotik, jasotatik eta hautatutakotik dauka. Eta jasoten eta hautatzen umetatik hasten gara: familiarik, eskolatik, lagunakandik, ikusi, irakurri eta ikasten dogunetik, kulturatik eta gizartetik. Iturri askotatik edaten dogu. Argi dago, beraz, ingurune desbardineta bizi diran personak ez dabezela eragin bardinak izango. Egunero gabiltz gure ni-a eta gu-a eregiten. Nik, behintzat, onartu beharra daukat ez dala bardina gaur egun dodan identitatea eta oin dala hamar urte neukana. Nire inguruan gertatutakoak eta nik neure buruari egindako itaunak nigan eragin

dabe. Kontua da nortasun agiria hartu eta barriz irakurri dodala atzen urteetan nigan eragina izan daben ezaugarriak bertan ete dagozan ikusteko. Ez dot bat bera be topau.

Agirian aukeratzeko gitxi dago. Gure nortasuna landu edo moldatu daiteke: gure esku dago. Zu nor zaran esaten dauan txartel ofizial baten egilea baina, beste bat da. Jaiotzen garantetik esango deuskue mutil edo neska garan; ez dabe beste aukerarik aurreikusiko. Ondoren, herrialde batekoak garala gaineratuko deuskue. Bardin izango jakie arraza eta kultura; bardin zer sentiduten dauan agiriaren jaubeak. Eta, amaitzeko, zenbaki bat esleituko deuskue.

Atzen batean, sistemearen harmonia mantentzeko, sistemeak berak bere identitatea ezartzen dau. Berba egin dagiela, bestela, haur jaiobari hermafrodita izan daben gurasoak. Ez al deutsee ospitalean galdetu: Zer izatea gura doze haurra, neska ala mutila? Edo beren naziotasuna ukatu jakienak, kontau dagiela zer sentidu arazo deutseen identitate ez ofizial bat izatearren. Edo nortasun agiria ez izatearren ito diran horreei guztiak zelan esplikau identitatearen auzia? Eta identitate sexualari jagokonez? Heterosexualak ez diranak, zer? Ez da horrer buruz ezer idatziko. Isilarazoteko modurik onena da ez kontetea. Gure identitateari buruz idaztean, ahaztu egingo dabez gure ohiturak, joerea, izaerea, ingurunea eta hizkuntza, beste ezaugarri batzuen artean. Desbardinatasunak ereigi beharko leuke bardintasuna.

Nire agirian ezaugarri asko falta dira. Dagozan gehienak inposatu egin deustez.

Honeek dira datuak: Aritz Arrizabalaga Petralanda; gizonezkoa; espainiarra...

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidun makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Ezo



Sikatu barik, busti samar, urtsu edo saldatsu dagoan materia (lurra, janaria...) edo eguraldia izaten da ezo (esoa, agoskatuta). Esate baterako: "Ekarri doguzan pinu-erramak ezo dagoz oindokarren sutera botateko"; edo "Arroza siku edo ezo, zelan gura, ipiniko dogu jateko!". Batuz, heze da parekoa, baina ez guztiz. Ze ezo berbea umel baino bustiagoko dagozan gauzak erabilten da.

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...  
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkargatua  
Batzen gaitu

MONDRAGON

## LUMATUTEN



## XABIER PEREZ DE MENDIOLA

## Familia(k)

**J**oan dan lorailaren 15ean, Familiaren Nazinoarteko Eguna ospatu zan, ospatuteko gitxi egon arren. Esaterako, medioen arabera, familia barruko biolentziak ikaragarri egin dau gora (% 110), seme-alabetatik gurasoakanako indarkeriak batez be.

Familiari buruz ez, familiari buruz berba egin behar da gaur egun. Eredu tradizionalagaz (aita-ama eta seme-alabak teilape berean, rol zehaztuakaz) bat ez datozen bizikidetzak modu "post-modernoak" ugaritu egin dira eta. Orain, umeak, ama batak hezi daikez, aita batek, ama bik, aita bik, anaia-arrebaordeakaz, edo hareek barik, orain probeta baten ondorengoa be izan zaitezke.

Kezkagarriena, gure gizarte "aurreratu" honetan, familiaren izatea galtzean dabilala da. Batetik, babesa eta maitasuna, bestetik, heziketa eta mugak errezten ebazan instituzinoa izatetik, buruhaustean sorburu

dan lotura afektibo bako personan multzoan bilakatu da familia kasu askotan.

Orden patriarkal zorrotzegi batetik, limiterik ez daukan desorden batera egin dogu salto. Salto hirukotxa. Izan be, zaharra ez da beti (edo guztiz) txarra, eta barria ez da beti aurrerapausua. Adibidez, ez da urte asko, seme-alaben hezkuntza, aiten autoritarismo arbitrarioak eta amen bitartekari-konplize papelak marketan ebela. Egun, ordea, gurasoen eta seme-alaben arteko distantzia hierarkikoa ezabatu egin da, eta heziketa, bardintasunean oinarrituta da. Bigarren eredu aurrerakoi horretan, guraso eta nerabeen arteko gatazkak ohikoagoak dira, azken horreek mugak eskatzen dabez eta, probokazino gero eta dramatikoagoakaz. Ez da kasualitatea, adinbakoan artean arretra psikiatrikoaren goraldia.

Horrenbestez, jada, familia, ez da inoz huts egiten ez eban, beti lagunduteko gertu egoan, egitura sendo ha, kolokan dagoan eraikuntza ahula baino. Hori dala eta, herritarrok bestelako erakundeetan (gizarte, hezkuntza eta osasun zerbitzuetan) bilatuten doguz familiak emon behar leuzan urtenbide eta erantzunak, instituzino horreek gainezka egin arte. Berreskuratuta daiguzan familia eredu klasikoaren baliodun oinarriak, berandu baino lehen.

## ZERTZEAN



## ALVARO RABELLI

**G**räf & Stift Double Phaeton markako auto austriarra jauregiko atetik sartzeaz batera baekien jakin limusina horretaz arduratu behar ebenek arazo bat baino gehiago emongo ebana. Horretan behintzat baegoan Skirs mekanikari nagusia, gabarra baten ia Serbiako mugaraino Danubio ibaian zehar eroan eban bera. Beharbada ibaitik egindako bidaian izango zan, edota handik uriraino tren bagoian egindakoagaitik, baina, edozelan be, autoa Sarajevora matxuratuta ailegau zan eta egun bat baino ez zan falta artxidukeak urira ailegau eitezan. Ez egoan bueltarik, Franz artxidukearen auto kuttuna konpondu behar zan, kosta ala kosta konpondu be. Ford T-ren azken modeloa euki balebe, ez zan ha

## Ez dago atzerako martxarik

guztia inondik inora gertatuko, horrelaxe murmurikatzen eban Skirs-ek loari lapurtutako gaubea arintzearen, bere agindupekoek autoa konpontzen amaitzen eben bitartean, Sarajevoko tabernetara egindako txangoetan. Horreetako baten ezagutu ei eban Gavriilo izeneko serbiar gazte tuberkuloso bat. Horrentzat be ez egoan atzerako martxarik, ez behintzat bere birika sikuentzat, eta, ez tul odolduak grapparen zapore mikatza hartzea eragozten eutsan arren, isilpean, eskuko hartzamarrek ondo gogoratzen eben azukre-kutxa baten gordetzen eban pistola erdi-automatikoa zelan dantzau. Gaubeak aurrera egin ahala, Skirs-en arduraga handiagotuz joian, tren inperiala bidean zan eta geltokian baegoan dana prest artxidukeai

harrera arranditsua egiteko. Ailegau ziranean, hantxe egoan zain Gräf & Stift Double Phaeton ha, gidari despistau batek urteera bako kale estu baten trabauta itxi ebana, justu Gräviloaren hatzamar dantzarien aurrean. Albiste nahasiak jauregira ailegau ziranean, Skirs, gertatutako guztia autoaren matxurea baino ez zala pentsatuz, asaldatu egin zan eta artxidukeen segizioko nonori zera autortu eutsan – Jauna, autoak ez dauka atzerako martxarik, ezin izan dogu konpondu – Bada, orain gerreak bez – erantzun ei eutsien.

Ford T-ren azken modeloa euki balebe, ez zan ha guztia inondik inora gertatuko, horrelaxe murmurikatu eban Skirs-ek azken biderrez, artxidukeek Gräf & Stift Double Phaeton hatan itxitako odol aztarnak garbitukeran.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**E**spainiako Erregearen abdikazioa iragarri dau Rajoyk orain dala pare bar ordu, bagilaren 2an. Erregearen figurearen ingurukoak, zein izango dan Felipe errege bihurtuteko prozesuak eta, inportanteena, errege barriaren koroatze zeremoniak, besteak beste, beteko ditue albistegiak hurrengo hileetan.

Ezin notizia hoberik PPrentzat! *Panem et circenses* emon behar deusie agintarik herriari. Ogia kentzean, entretenimentuak lagundu ahal dau jentearen protestea baretzen eta poderea mantenduten. Prensak orain ez dau fokoa ipiniko PPren politiketan eta jentearen hasarrean...

Eta, jokalaria jokalaria truke, jokalaria aldatu arren jokoa ez da aldatuko.

Sorpresa handia litzateke Felipek Espainia errepublikar baten alde egitea!



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostiscl.com](mailto:gorosti@gorostiscl.com)

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

hagin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarregoa

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Biokala  
T. 94 631 50 39  
Halegora Zirkulu 101  
R.P.S. 21/06

**FISIOTERAPIA** Grupo Sasobide

Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago  
COL. 1718

[www.gruposasobide.com](http://www.gruposasobide.com) Tel: 94 657 54 50

## IGORRE

# Igorreko Jaiak, jaiak hasikerea emoteko modurik onena

Bilboko Aste Nagusiak bederatzi egun ditu, Igorreko jaiak, akaso gitxiago ez izateko, beste horrenbeste eta ia 60 ekitaldi. Txosnagunean, Goiko Plazan eta herri osoan zehar jai giroa eta zer egin ez dira faltauko, beraz. Kontzertuen artean, San Antonio egunekoak aiatatu behar: egun horretan Zea Mays Bilboko talde entzutetsua egongo da Igorren eta. Gastronomia lehiaketetan, Munduko Arrozen Txapelketea hilaren 7an izango dala ezin da esan barik itxi, eta kirolari jagokienean, pelota partiduak, futbol 7, igeriketea, mendi bizikleta martxea... aukerea ugari-ugaria da.

### Erredakzioa

Igorreko jaiak parekideak izan daitezkan, Noka Arratiako talde feministak "Ez da ez, game over! Bai da bai, gozatu!" lemapean, jaietan eraso sexistarik egon ez daiten pankartak ipini eta pegatinak bananduko dabaz. "Badatoz jaiak eta ondo pasetako gogo. Dana dala, jaietan be, androk, hainbat eraso sexista sufriduten doguz: emoten dau danak balio dauala. Tabemetan, txosnetan, jantzan, zerbezak edaten... Ohikoak dira sutilak bezain iraingarriak diran agresinoak. Nazkatuta gagoz" dinoe.

### Bagilak 6, barikua

**17:00**etan, Zaztaparrak-ekoak umeakaz turutat egiten txosnagunean.  
**17:00**etan, Ardoa Barrura txarangea herrian zehar.  
**18:30**etan, Agirre Lehendakaria kale-tik igoera udaletxera. Buruhandiak, txarangea, koadrilak, umeak... Udaletxean Larrain jantza.  
**19:00**etan, txupinazoa udaletxeko plazan. Jeitsiera txosna gunera. Txosna gunean jatekoa danentzat.  
**20:00**etan, koadrilen arteko olinpiadak. Gurasoak umeen karroakaz lasterketea txosnagunetik bide kurutzer. Saria egongo da. Karro karrera Lehendakari Agirren hasi eta txosna gunean amaituko da.  
**21:00**etan, erromeria Aiko taldeagaz.  
**22:00**etan, DJ Txino.  
**24:00**etan, Zu bai zu! Talentu Lehiaketea. Izena emoteko 19:00etatik 21:00etara. Sariak emongo dira. Ondoren, DJ Txino.

### Bagilak 7, zapatua

**09:00**etan, Sanantonioetako III. Futbol 7, Alebin-benjamin torneo.  
**11:00**etan, kalejirea Goiko Plazatik



hasita.

**12:00**etan, Munduko Arrozen Txapelketea txosna gunen ondoko landan. (Euria bada, eskoletako aterpean).  
**14:30**etan, Arroz Txapelketearen aurkezpena.  
**16:00**etan, Bizkaiko Rugby Zazpi Kopa.  
**16:00**etan, *chill out* txosnagunean. Munduko teen dastaketea.  
**16:30**etan, pelota jaialdia. Herriko gazteakaz torneo.  
**17:00**etan, "Afrika ruge" jantza afrikarrak.  
**18:00**etan, ezagutu Arratiako Gurutz Gorria: lehen sorospinak, simulakroa... Kultur Etxeko parkean.  
**20:00**etan, Abesbatzen kantaldia Kultur Etxean. Luis Iruarizaga Abesbatza (Igorre), Mendi Ona Abeslariak (Sodupe), Begi Argiak Ganbarako Abesbatza (Durango).  
**23:00**etan, kontzertuak. Priscilla Band eta Zulu 9.30. Ondoren berberena Zirkinik bez taldeagaz.

### Bagilak 9, astelehena

**17:00**etan, umeen karaokea udaletxeko frontoian. (Euria bada txosnagunean).

**19:00**etan, Futbito Txapelketearen finala.

### Bagilak 10, martitzena

**18:00**etan, Arratia Musika Eskolako emonaldia. Lasarte Aretoan.  
**19:00**etan, Frontenis kanporaketea eta finala Goiko Plazan. (Euria bada kiroldegiko frontoian).  
**19:00**etan, slackline erakustaldia eta animetan diranentzat tailerra. Eskalada txapelketea Goiko plazan.  
**19:30**etan, Arratia Musika Eskolako emonaldia Kultur Etxeko plazan.

### Bagilak 11, eguztana

**17:30**etan, Zumba danontzat Kultur Etxeko plazan (euria bada kiroldegian).  
**19:00**etan, Astrapalea musika eskolaren emonaldia txosna guneko eszenalekuan.

### Bagilak 12, eguena

Goizean zehar, eskolako umeen Inazio Zubizarretako I. Triatloia.  
**17:00**etan, umeen play-back-a udaletxeko frontoian. (Euria bada txosnagunean).  
**18:00**etan, triki kantu poteoa.  
**21:00**etan, herri afaria eta ondoren kontzertua Gaztetxean.

### Bagilak 13, barikua San Antonio Eguna

**08:00**etan, herri amozua Lehendakari Agirren.  
**09:00**etan, herriko jubiladuak antolatuta, igorreztar guztientzat heritik paseoa Kultur Etxetik abiatuta. Kopautxo egongo da.  
**10:00**etatik **13:30**era, umeentzat koltxonetak, karts-ak eta zezen mekanikoa.  
**10:00**etan, II. Mendi Bizikleta Martxea, BATZetik urtenda. Izena emoteko bizikleta\_martxa@batz.coop.  
**11:00**etatik **19:00**etara, Txu-txu trenan AMEK antolatuta. Urtekerea orduro Garbe eta 105 bitarteko parkinaren ondokik.

**17:00**etan, Tortilla eta Pintxo Lehiaketea txosnagune ondoko landetan. (Mahaia eta aulkiak norberak eroan). Izen emotea 3 euro.

**17:30**etan, Fasio, Leon eta Maurizia erraldoiak eta Folk & Fire taldeagaz kalejirea erdigunetik txosnagunera.

**19:00**etan pintxoaren aurkezpena.

**19:30**etan tortillen aurkezpena. AMEK oparia emongo dau. Ondoren Skandalue txarangea heritik zehar.

**19:30**etan pelota jaialdia:

Gazteak: Ibai Cimadevilla-Xabier Ibarondo eta Zomozako bikote bat. Nagusiak: Imanol Agirre-Mikel Goñi, Asier Olaizola-Xabier Galarza.

**22:00**etan, Kontzertuak. Nik Khaos, Zea Mays. Ondoren erromeria, Izerdi Gomia taldeagaz.

### Bagilak 14, zapatua

#### "Euskeraz bizi gura dot" Eguna

**09:00**etatik **20:00**etara, Igorre euskeraren alde "III. Mile baietz" Eguna. Hasikerea eta amaitukerea Kultur

Etxeko plazan.

**10:00**etan, igeriketa erakustaldia.

**17:30**etan, umore rallya txosnagunean hasita.

**18:00**etan, *Sardina Freskue* umeentzako antzezlan txosnagunean.

**22:00**etan, kontzertuak Skasti eta MG Banda. Ondoren erromeria Akerbeltz taldeagaz.

### Bagilak 15, domekea

**11:00**etan, kalejirea Garbetik hasita.

**13:00**etan Areatzako Banda Kultur Etxean.

**14:00**etan, jubiladuen bazkaria eta Karta joko Txapelketak.

**18:00**etan Arantzarte Dantza Taldearen erakustaldia.

**19:30**etan, berberena Jokaldi taldeagaz AMEK antolatuta. Bitartean, Bals Txapelketea, koadrilen arteko olinpiaden sari banaketea eta zozketea.

**20:00**etan, jaien amiaerako txokolatea Beinkelren eskutik. Jaien amiaiera.

## ZEBERIO

# San Antonio jaiak Ermitabarrin

### Erredakzioa

Hasi da jaietako sasoa, ez bakarrik herrietako jaietako, auzuneetako be bai. Hamabostaldi honetan San Antonio jaiak ospatuko dira Zeberio Ermitabarri auzunean. Aurtan, San Antonio eguna barikua da, eta hiru egunetako egitaraua prestatu dabe Ermitabarrikoak, jai eguna bera eta astegoiena hartzean dauana. Hile honen lehengo astegoienean, Zeanuriko Iburguen auzuneko eta Igorreko Basauntzeko jaiak izan dira.

### Ermitabarri (Zeberio)

#### Bagilak 8, domekea

**09:00**etan, III. Zeberioxtrem BTT martxea.

#### Bagilak 13, barikua

**12:30**etan, mezea.  
**13:00**etan, barauskarria.  
**18:30**etan, txupinazoa.  
**18:30**etan, pelota partiduak.

**21:00**etan, sardina jana.

**22:00**etan, rock jaialdia.

#### Bagilak 14, zapatua

**12:30**etan, puzgarriak.  
**13:30**etan, poteoa.  
**14:30**etan, bazkaria (marmitakoa).  
**16:00**etan, puzgarriak.  
**18:00**etan, serigrafia Aker Serigrafiaz.  
**18:00**etan, bola jokoa.  
**19:30**etan, herri meriendea.  
**22:00**etan, kontzertua The Zepo Rock and Roll taldeagaz.  
**23:30**etan, berberena Batek Daki taldeagaz.

#### Bagilak 15, domekea

**12:00**etan, pato lasterketea.  
**13:00**etan, txalapartea.  
**13:30**etan, trikitaliak. Musika Eskolako trikitalari gazteak.  
**18:30**etan, mariatxiak.  
**20:00**etan, argazki lehiaketako sari banaketea.  
**20:30**etan, zozketea.

IGORRE  
Jai batzordeak eta Igorreko Udalak  
Gora Igorreko Jaiak!  
JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

FISIK  
FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

HERRIKO BENTA  
HOSTAL  
HERRIKO PLAZA  
40142 ARTEA (IBORRA)  
Tel. 94 631 72 56

## ARRATIA

## Arratiatik Urkiolarako errogatibea egingo da

## Erredakzioa

Bagilaren 14an, zapatuan, egingo da Urkiolarako, Paduako San Antonoren santutegira errogatibea; tradizioa jarraituz, San Antonio egunaren osteko zapatuan izaten da arratiaren errogatiba eguna. Lehenago herri bakotzak bere errogatibea antolatzen baeban be, atzen urteotan, Arratiako parrokiak guztiak aldi berean joaten dira Urkiolarako, bailarako abadeakaz batera. Horretarako, Mankomunitateak autobus bat ipiniko dau. Dana dala, erromes guztiak ez dira autobusean joango, batzuk euren kotxeetan eta beste batzuk oinez joango dira eta. Gainera, Zeanuritik eta Dimatik Urkiolarako oinezko ibilaldi gidatuak be prestatu dira.

Aurtengo errogatibea "Ondarea jaso eta jagon" lemapean egingo da eta kartelak Urkiolarako santutegiari Jon Urutxurtuk egindako argazki bat hartzean dau oinarritzat.

## Egitaraua

"Hamaikak baino lehentxoago, ondoetorria emongo jakie oinez, autobusean edo euren kotxeetan Urkiolarako hurreratutako arratiar erromesai. Ondoren, eta aspaldiko usadioa jarraituz, letaniak abestuz sartuko dira erromesak Urkiolarako Santutegira, 11:00etan Arratiako

abadeak emongo daben mezea ospatzeko. Meza ostean, Arantzazuko parrokiak, aurtengo errogatibearen antolatzailea, lemeagaz bat datorren sinbolo bat eskeiniko deutsee Urkiolarako hurreratu diranai" azaldu dabe Arratiako Elizatik.

## Ibilaldi gidatuak

Igaz legez aurtan be Arratiatik Urkiolarako joateko ibilaldi gidatuak egiteko aukerea izango da. Dimatik eta Zeanuritik abiatuz, Arratia eta Urkiolarako lotzean dauzan bide klasikoetako bi ezagutzera emongo dira. Urtekereak Dimako plazan goizeko 06:00etan eta Zeanuriko plazan 07:30ean.



## ZEANURI

## Herritarren alegazioak aurkeztu dabez Xorokilen ustiapenaren kontra

## Erredakzioa

Alegazioak aurkeztuteko epea maiatzaren 29ra arte luzatu zan eta Arratia Bizirik taldekoak banakako 620 alegazio inguru aurkeztu ebezan Xorokil kanterea ustiatzeko proiektuaren kontra. Talde moduan, inguruko abeltzainak, ehiztariak, eta Ubideko Udalak, beste batzuen artean be, aurkeztu ditue alegazinoak.

Horrezaz gainera, Change.org-en eskaerea sortu eta jasotako 200 sinadura inguru be aurkeztu dabez udaletxean. Orain udalak hiru hilabete daukaz erantzuteko.

## Turismoan eta abeltzantzan eragina

Arratia Bizirik Plataformaren arabera, Xorokil harrobia zabaltzeko proiektuak "sano ondorio kaltegarriak" izango leukez Zeanuriko he-

rriarentzat. Alde batetik, ondorio ekologikoak jagokienean, landare espezie asko arriskuan ipiniko litzatekez, iturburu bat kutsatuko litzateke eta interes arkeologikoa daukien kobazuloak be eragin leikie. Ekonomian be izango leuke eragina, eta inguruko abeltzaintza eta turismoa kaltetuko leuke. "Etor-kizunean harrobi bat egiten bada-be, Zeanurik sano irudi diferentia izango dau" dinoe Plataformakoak.

Herriko bizimoduan hain eragin handia izan arren, herritarrek ez daukiela proiektuaren barri dinoe Arratia Bizirik-etik. "San Isidro jaietan, informazioa zabaldu eta sinadurak batzean egon ginan eta konturatu ginan herritarrek ez ekiela honen barri. Informazioa emon geuntsen eta gehienak harrobiaren kontra agertu ziran. Herritarrek sano kezkatuta dagoz" dinoe.

## ARRATIA

## Europako hauteskundeetako emoitzak

	Errolda	Abstentzioa	EAJ-PNV	EH Bildu	PP	PSE	Podemos	IU	UPD	Vox
Arantzazu	305	89 % 29,18	103 % 48,6	97 % 45,8			8 % 3,8			
Aratzua	913	353 % 38,66	222 % 41,1	216 % 40,3	25 % 4,7	24 % 4,5	12 % 2,2	15 % 2,8		
Artea	606	210 % 34,88	183 % 47,2	168 % 43,3	15 % 3,9		6 % 1,5	7 % 1,8		
Bedia	841	395 % 46,97	246 % 56,3	120 % 25,7	15 % 3,4	19 % 4,3	7 % 1,6	12 % 2,7	6 % 1,4	6 % 1,4
Dima	1.126	425 % 37,74	255 % 36,7	400 % 57,6			11 % 1,6	8 % 1,2		
Igorre	3.256	1.707 % 52,46	670 % 44	640 % 42	30 % 2	43 % 2,8	51 % 3,4	25 % 1,6		
Lemoa	2.692	1.258 % 46,73	542 % 39,2	567 % 41	37 % 2,7	73 % 5,3	44 % 3,2	41 % 3	28 % 2	
Ubide	141	46 % 32,62	22 % 23,7	59 % 63,4	6 % 6,5	2 % 2,2	1 % 1,1	3 % 3,2		
Zeanuri	1.013	379 % 37,41	318 % 51,1	267 % 42,9	8 % 1,3		8 % 1,3	6 % 1,3		
Zelberio	889	376 % 42,29	239 % 47,8	210 % 42	7 % 1,4	9 % 1,8	12 % 2,4	8 % 1,6		

## Erredakzioa

Europako Legebiltzarrerako Hauteskundeetako Arratiako emoitzak jaso doguz hurrengo koadroan. Gitxi-

nez herri baten % 1 baino botu gehiago jaso daben formazioak jasoten dira bertan.

## ARRATIA

## Hogeta bat autobus Arratiatik Arakilerara

## Erredakzioa

Hogeta bat autobus eta 120 kotxe inguru urtengo dira Arratiatik, Arakileren giza katearen 99. km.a osotuteko. Izan be, horixe da Arratiari egokitu jakon kilometroa, Gure Esku Dago erabagiteko eskubidearen aldeko dinamikeak, bagilaren 8an Durango eta Iruñea artean egingo dauan giza katean. Kilometro bat osotuteko 400 persona inguru behar da antolatzaileen arabera, Arratian 1.500 inguruk emon dabe izena giza katean parte hartzeako.

"Hasieran ez zan boom bat izan, apurka-apurka hasi zan jentea izena emoten eta gero eta jente gehiago dago. Baina beteteko sobran badago jentea, hobe" dinoe Arratiako antolatzaileak.

Autobusak 08:15ean urtengo dira eta puntualtasuna eskatuten da; izan be, hamarretarako bertan egotea ezinbestekotzat jotzen dabe antolatzaileak. Horregaitik, autoan doazenak 08:15 baino lehenago

urten beharko leukie, autobusen atzetik ez joateko eta aparketako lekua topatzeko. Autobusean joateko, urte bi arteko umeak euren maxicosi edo aulkia eroan behar dabe.

## Kamiseteta soinean

Gure Esku Dago-ren kamiseteta eroan behar da soinean. Ondino ez dauanak erosi, Gure Esku Dago-k Usansolon daukan dendan erosi ahal dau. Astebarruan, 19:00etatik 20:00etara egoten da zabalik eta zapatu-domeketan 12:00etatik 14:00etara.

Erropa egokia eta jatekoa be eroan behar dira. Edadekoai, aulkia erroteko gomendatzen deutsee antolatzaileak eta umeak euren ardura daukanaren telefono zenbakia idatzita eroan dagiela eskatuten dabe.

## Autobusak

Autobusak hurrengo galekuetatik urtengo dira Arakilerara joateko.

Arantzazu: Montero parean Zeanurirantzako norabidean.

Aratzua: eleiza aurrean.

Artea: udaletxe aurrean.

Bedia: Bediakoak Lemoan hartuko dabe autobusa.

Dima: frontoi eta eskolen artean.

Igorre: institutu atzean.

Lemoa: eskoletan.

Ubide: Madalenako Ortuzar aparkalekuan.

Zeanuri: Txoko Sagarna aurrean.

## Egitaraua

Erabagiteko eskubidearen aldeko ekimen hau jai giroan egingo da eta itzaroteko tarreak beteteko egitaraua prestatu dabe Arratiakoak.

**10:00**etan, 99. km.an lekua hartu. Animazinoak (umeak play-backa, Zastaparrak, Arantzarte Dantza Taldea, Zarpantzarrek, txalapartea, trikitaliak...).

**10:30**ean, ensaioa.

**12:00**etatik **12:30**ak arte giza katea.

**13:00**etan, autobusean Etxarri-Aranatzera.

**14:00**etan, ekitaldia.

**14:30**ean, bazkaria (etxetik erotea komenidu da).

**17:00-18:00**etan, autobusetan buelta Arratiarantz. Autobusetan zehaztuko da ordua.

## LEMOA

## Urigintzea beste ikuspuntuetatik begiratuteko jardunaldiak

## Erredakzioa

Lemoako Udalak "II. Hirigintza Jardunaldiak: Hirigintza ikuspuntu ezberdinetatik" izeneko jardunaldiak antolatu ditu, heritarren urigintzearen

inguruko ezagupenak handitzeko helburuagaz. Lehenengo saioa maiatzaren 29an izan zan eta hilaren 5ean eta 12an izango dira hurrengo biak.

Lehenengo saioan, herritarren partehartzea eta umeak urigin-

tzako eragile moduan, landu eben Elizondoko Kultur Gunera hurreratu ziran lemoaztarrek.

Hurrengo saioa hilaren 5ean izango da eta urigintza jasangarria eta Lemoan hau zelan gauzatu eztabaidatuko dabe partaideak. Atzenik, "Herri inklusiboa: genero ikuspegia hirigintzan bertatzeko gakoak" izeneko jardunaldia izango da eta bertan lemoaztar guztientzat Lemoa bizigariago egiteko erispideak landuko dira.

## LEMOA

# Urigintzako irregulartasunak argituteko batzorde bat bultzatuko dau Bilduk

Bagilaren 4an, Lemoako Udaltzako bozkatuko dau aurreko legegintzaldietako urigintzako irregulartasunak argituteko batzorde berezi bat sortutea. Udalak aztertu dituan espedienteen artean, "herritarrak kaltetzen dituen ez ohiko jarduerak" aurkitu dituela esan eban Saioa Elejabarrietak Bilbon emondako prensaurrekoan maiatzaren 29an.

### Erredakzioa

Horregaitik, eta irregularidade horreek ikertzeko, batzorde berezi bat sortzea beharrezkoa ikusten dau Lemoako udal gobernu taldeak. Batzorde hori, hiru fasetan garatuko litzateke. Lehenengo fasean, batzordearen sorrera, behar egutegiaren onarpena eta inplikautako alde guztiai abotsa emotea eskatzen dabe Bildukoak. Bigarren fasean, jasotako dokumentazioaren eta bertaratu-takoen adierazpenen balorazioa eta azterketea egitea proposatzen dabe, eta atzenik, jarduerak oker guztiak jasoko dituan txoste-

na osotuteko asmoa agertu dau Lemoako udal taldeak.

Batzorde honen sorrera bagilaren 4an bozkatuko da Udaltzatan.



Saioa Elejabarrieta eta Jesus Mari Fernandez.

### Hainbat itaun

Momentu honetan mahai gainean sei bat espediente daukiezala esan eban Saioa Elejabarrieta alkateak. Parte hartu eben guztien bersinoa entzuteko asmoz egin gura dabela batzordea ondorioak atera dagian eta irregulartasunak gainera, ilegalidadeak be dagozan ikusteko. San Inazioako birpartzelazioa, Pozuetako etxe blokeetan zergaitik onartu zan proiektuan eta lizentzian aurreikusitako etxebizitza kopurua gainditzea edota zergaitik eregi diran etxebizitzak industri jardueren ondoan, dira udal gobernu taldeak argitu gura dituan gauzetako batzuk.

## ZEANURI

# III. Enpresen arteko topaketea

### Erredakzioa

Bagilaren 9an, goizeko 09:00etan hasita, Arratiako Udalen Mankomunidadeak, Amorebieta-Etxanoko Udalak eta Galdakaoko Udalak antolatuta, enpresen arteko topaketea antolatu dabe. Jardunaldi hau, igazko moduan, Zeanuriko Zulaibar Lanbide Ikastegian izango da. Bertan, enpresariak euren enpresak ezagutera emon, inguruko beste enpresa batzuk ezagutu eta interes bardinak dituen zonaldeko beste enpresak hartu-emonetan ipinteko aukera izaten dabe.

## DIMA

# Sendabedarren gaineko ikastaroa

### Erredakzioa

Sendabedarrak eta haren propietadeak eta erabilpena ezagutera emoteko, 8 orduko ikastaro bat antolatu dabe Diman. Ikastaroak saio teorikoak eta ibilaldiak izango ditu, lau eskola egunetan bananduta. Mari Feli Prieto izango da irakaslea eta bagilaren bigarren hamabostaldiko astelehen eta martitzenetan izango dira eskolak, hilaren 16an, 18an, 23an eta 25ean, hain zuzen be.

Ikastaroa gaztelez izango da eta izena emon gura dauanak 635 139 863 telefonora deitu behar dau.

## IGORRE

# Lan istripua Zabortegian

### Erredakzioa

Kamioi bat irauli zan Igorreko zabortegian maiatzaren 28an. Istripuaren ondorioz, txoferra zaurituta suber-

tau zan eta Galdakaoko Ospitalera eroan eben, Segurutasun Sailak jakitera emon ebanaren arabera.

Suhiltzaileak atera behar izan eben gidaria, iraultako kamioian harapatuta geratu zan eta. Osalaneko teknikari bat istripua gertatutako lekura joan zan, istripu honen zergaitia ikertzeko. Ikerketa honen ostean, Osalanek lan segurutasun neurrien gaineko balorazioa egingo dau.

## ZEBERIO

# Maurizia eta Leonen izena izango dau udaletxe ondoko kantoiak

XIII. Euskal Herriko Alboka Eguna Zeberion ospatuko da hilaren 7an.

### Erredakzioa

Bertan Euskal Herriatik eta kanpotik etorritako albokariak batuko dira ia desagertuta egon zan eta gaur egun loratu dan instrumentu hau jotzen. Zeberioko Maurizia Aldeiturriaga panderojolea eta Arteako Leon Bilbao albokariaren omenez plaka bat ipini eta udaletxe ondoko kantoia "Maurizia eta Leonen kantoia" izena ipiniko jako. Ekitaldira Maurizia eta Leonen senideak dagoz konbidautu.

2002 urtearen geroztik, Arabako Sorginetxe Kultur Taldeak antolatu dau Euskal Herriko Albokariaren Topaketa bat urtero. Aurreko topaketak Otazu, Albaina, Zalduondo, Lantziego, Delika, Gizaburuaga, Arizkun,

Gueñes, Riezu eta Otazan izan dira eta aurtan Zeberion izango da. Holan, Zeberioko Austarri Kultur Taldeak eta Sorginetxek alkarregaz arduratuko dira Zeberion antolatuten albokariaren topaketa hau.

"Aurton, albokariaren topaketea Gorbeialde eremuan ospatzeak bereziko eragina suposatzen dau; izan be, espazio geografiko hau albokari entzutetsuen jatorria izan da, hala nola, Txuskoa, Txisperue, Sagarna, Txilibrin, Leon Bilbao eta abar luzea" dinoe Austarrikoak.

Zeberiora, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Iparraldeko albokariak gainera, beste lekuetako albokariak be etorriko dira, Bartzelonako Euskal Etxe-koak eta Huescakoak, kasurako. Baita albokeagaz loturea

daukien musika-tresna joleak be, Madril, Cadiz, Sardinia eta Hungariatik.

Albokariaren topaketa egunean, omenaldi berezia egingo jakie Zeberion jaiotako Maurizia Aldeiturriaga panderojoleari, eta Arteako Leon Bilbao albokariari eta Zeberioko Zubialdeko kale bateri, udaletxe ondoko kantoia, hain zuzen be, haren izena ipiniko jako. Ekitaldira Maurizia eta Leonen senideak konbidatu ditue Austarri Kultur Taldekoak.

### Egitaraua

Hauxe da Austarri taldekoak prestatu daben egitaraua:

**11:00**etan, harrerea Ermitabarrin.

**11:30**ean, kalejirea Ermitabari-Zubibarra-Plazea.

**12:30**ean, hamaiketako udaletxe aurrean.

**13:00**etan, Maurizia eta Leonen plakea eta alboka-poteoa.

**15:00**etan, bazkari herrikoa. Bazkalostean, alboka libre eta bat-batekoak.

**19:00**etan, alboken eta panderoaren zoketea. Ondoren kontzertuak: Ibon Koteron eta Exaixu taldea. Egun osoan zehar, erakusketea egongo da, Iker eta Ossesen postuak, puzgariak eta tailerrak umeentzat eta ipuin kontalaria arrastiko 17:00etan.



Leon, Maurizia eta Fasio.

**ZAZPI HAZIETARA** Euskal Herriko Produktuak **IGORREN ZABALIK!!!!!!**

Eguneroko produktuak  
Euskal Herri osotik ekarriak.  
Arratiko produktuak.  
Euskal jantziak.  
Artepitxiak.  
Ospakizunetarako detalleak.  
Oparitzeko otzarak.

**ZAZPI HAZIETARA** ngure ekoizle eta produktuen aldeko apustua egiten dogu. Gure letoa: **Gurea kontsumituz, geurea babestu!**  
**Erdu zure eguneroko euskal produktuen txokora!!!**

**AGIRRE LEHENDAKARIA 11, 48140 IGORRE**  
zazpihazietara.arratia@gmail.com  
tfnoa. 946319243

## ARRATIA POSTA TXARTELEAN

# Postontziko Arratia

XX. mendearen lehen erdian argitaratu ziran Arratiari buruzko posta txartelak bildu ditu Jon Urutxurtu zeanuriztarrak *Arratia posta txartelean* izenburupean argitaratu dauan liburuan. Egileak dinoenez, "garai bateko bizitza ezagutzeko leiho izan daitezke irudi honeek".

**Erredakzioa**

Orain dala denpora gitxira arte gertatzen zanagaz alderatuz, erdi hutsik dagoz postontziak. Internet, irati, telebista... bidez heltzean da orain mundua gure atariraino. Baina, sasoi baten, posta txartelak esker ezagutzen ziran munduko txokoak. XIX. mendaren amaierarantza hasi ziran indarra hartzean posta txartelak, eta turismoa hedatuz joan ahala zabaldu egin zan hareek biltzeako zaletasuna.

*Arratia posta txartelean* izenburupean argitaratzen diran posta txartel gehienak, liburuaren egileak atzen 15 urteotan batu dituanak dira. Badagoz batzuk bere bilduma partiku-

larrekoak ez diranak, lan honetarako beste bildumazale batzuek itxi deusiezanak. Egileak dinoenez, "Arratia eta arratiarren irudiak azaltzen diran posta txartelak biltzea izan da lanaren helburua, era horretan Arratiako ondare historikoaren atal bat berreskuratzeko eta ezagutzera emoteko".

Guztira 89 posta txartel aurkezten dira, egileak hasikera baten topatzea pentsetan ebazan baino askoz gehiago: "sarritan, Arratia iraganari loturiko parajetzat hartu da, Bizkaia zaharkituaren paradigmaztat. Gertaera horrek pentsarazo leikigu posta txartel ilustratuak argitaratu ziran lehen urteetan —XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran— ez

ebala erakarriko editoreen arretea. Lan honetan azaltzen dan kopurua kontuan hartuz, bistakoa da hori ez zala holan izan".

Dana dala, helburu nagusia Arratiari buruz editatu diran posta txartel klasikoak —izenburua edota editorea, inprimatzailea eta argazkilaria idatzita daroena— biltzea izan bada be, ez dira ahazten argazki-posta txartelak, argazkilaria batzuek posta txartelen papelean errebeletan ebezan argazkiak, postaz bidali ahal ziranak: aurrekaldean argazkia daroe eta atzekaldean Post Card, Tarjeta Postal, Carte Postale izenburua inprimiduta edota helbidea idazteko eta zigilua itsasteko gunea. Argitalpen honetan, lekukotasun gisa zortzi adibide biltzean badira be, Jon Urutxurturen ustez "hainbat izango dira gure etxeetako bildumetan gordeta edo ahaztuta egongo diranak eta horreek hurrengo lan baten xede izan daitezke".

Arratia eta arratiarri buruzko posta txartelak argitaratu ebezenen artean, zenbait enpresa zein partikular topau daitezke eta horreen artean honako honeek identifikau dira: Felipe Manterola, Foto Lux, L. G. Bilbao, Libreria E. Verdes, Libreria Villar, Artes Graficas Lerchundi S. A., P. Ortiz, Seminario Menor de Ntra. Sra. de Begoña, Areatzak bainuetxea, Bizkaiko Foru Aldundia, Museo de las Guerras,



Argazki-posta txartela. Dimako Ugarana plazan egoan bolatokian egindako argazkia.



Felipe Manterolak editautako posta txartel bat: "Igande arratzaldea". Zeanuriko Zulaibar auzoan egindako argazkia da.

Landaburu Hermanas eta L. Roisin. Editoretzat hartu daiegun Indalecio Ojanguren eta Durangoko Foto Sol argazki dendea be, eurak editautako bi argazki-posta txartel batzean dira eta.

**Felipe Manterola: argazkilaria eta editore arratiarra**

Editore horreen guztien artean aita-men berezia merezidu dau Felipe Manterolak (Zeanuri, 1885-1977), alde batetik arratiarra izateagaitik, eta bestetik, berak editatu ebazan posta txartelen balio etnografikoagaitik. Jaiotzez zeanuriztara zan eta bere herrian bizi izan zan beti. Felipe argazkilaria handia be izan zan, eta zaletasun hori bizibide inoz ez baeban hartu be, aldian aldiko diru-ituri bihurtu eban. Dirudiane, lehenengo argazkia 1904. urtean egin eban, hemezortzi urte ebazala, eta ordutik aurrera, 1936ko gerrak eztanda egin arte, mila argazkitik gora egin ebazan. Manterolaren irudietan ageri dana gehienbat honako gai honeetara mugatzen da: paisajea eta lagunak, herriko lanbideak eta jazoerak XX.

mendearen lehen hiru hamarkadetan. Eta lan horreetan guztietan argi eta garbi azaltzen da bere jaioterri-gaz, Zeanurigaz, eukan lotura handia.

XX. mendeko bigarren hamarkadan posta txartelen bildumak be editatu ebazan, berak egindako argazkiak erabiliz. Batzuk Alemanian emon ziran argitara, beste batzuk Frantzia eta Bilbon. Atzen uri honetan Foto Lux etxeak prestatu ebazan. Felipe Manterolaren hamar posta txartel biltzean dira liburu honetan. Hamar posta txartelak aurrekaldearen oinean euskeraz idatzitako testua daroe, azaltzen dan argazkiaren gaiari izenburua ipiniz: Eusko-lugin lanak (lau posta txartelatan), Eusko-artaldea, Igande arratzaldea, Bola-tokia, Eusko-etxarte, Eusko-basarte, Zeanuriko-txada. Atzekaldean egilearen eta herriaren izenak aitatzen dira: "Felipe de Manterola — Ceánuri".

Aitagarria da Graficas Lerchundi Bilboko etxeak, 1944an editatu eta inprimidu eban hamar posta-txartel osozotan dan seriea be. Serie A. Arratia. Vizcaya izenburua daroan



Felipe Manterolaren autoerretatua. Posta txartelen bildumak editatu zituan, bere argazkiak erabiliz.

www.begitu.org



publicidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com

**Okindegia**  
+ Ke... PAN  
Etxean bertan egindako pastelak

**IGORRE**  
Lehendakari  
Agirre 11  
94 656 65 52  
Sabino Arana 35  
94 657 3898

**AREATZA**  
Goiko kalea 8  
94 608 90 47

**E P A**  
Galdakao

www.epagaldakao.com

Matrikuletako epea,  
bagila osoa.

Tlfn. 94 456 60 98  
Helduen heziketa

**E.P.A.**  
IGORRE: Elejalde 22. Eleizako lokaletan





**Zeanuri. 1910eko hamarkadako posta txartela. Ezkerrean azaltzen dan mutikoak, Esteban Astondoak, bizia galdu eban 1937ko apirilaren 7an gertatu zan nazionalen aire-bonbardaketaren ondorioz.**

gutun-azal baten bilduta argitaratu ebazan: bina postal Areatzari, Dimari, Igorreri eta Zeanuriri buruzkoak, eta bana Arteari eta Lemoari buruzkoak. Azaltzen diran irudiak Luis de Lerchundiren marrazkiak dira.

**Hiru motatako posta txartelak**

Gaia jagokienez, hiru sailetan antolatu ditu egileak posta txartelak: tipoai buruzkoak eta ohitura posta txartelak; tokiko bistak (izaki bizidunakaz edo barik); eta publizidade posta txartelak.

Tipoai buruzkoetan eta ohitura posta txarteletan pertsonajeak agertzen dira euren ohiko janzkerakaz, baserri lanak, aisialdia azaltzen dabena irudiak, esaterako karta jokoa, bola jokoa, zezenketak...

Tokiko bistak agertzen dituenak paisajeak eta eraikinak erakusten ditue, batez be baserriak, eleizak eta zubiak. Kasu batzuetan pertsonak azaltzen dira, eguneroko bizitzako eszenetan, lanean...

Publizidade posta txartelen helburua enpresa, alkarte edo erakunde pribadu edo publiko baten jardueraz ezagutzera emotea da. Horreen ar-

tean aiatu behar dira Areatzako bainuetxeak eta Arteako Seminario Txikiak argitaratuak, baita Bizkaiko Foru Aldundiak auzo-eskolak ezagutzera emoteko editautakoak be.

**XX. mendearen erdira arteko posta txartelak**

Kronologiari jagokenez, XX. mendearen hasieratik 1950eko hamarkadara arte editatu ziran posta txartelak



**Areatzako eleizea. Hau da, Igorreko beste bategaz, Arratiari buruz argitaratutako posta txartelik zaharrena. Areatzatik Munichera bialdu zan eta alemanez idatzita dago.**

aukezten dira. "Data zehatza ezin bada jarri be, ziurtasunez baieztatu daiteke bi posta txartel zaharrenak 1906. urtearen aurrekoak dirala — atzekaldea banandu barik daroe—. Batak Areatzako eleizea azaltzen dau; besteak Igorrekoa, biak koloretan inprimiduta dagoz. Honako izenburuak daroez aurrekaldean: Areatzakoak 46 Bilbao - Iglesia de Arratia, eta Igorrekoak 47 Bilbao - Iglesia de Amatia. Atzen berba hori inprimatze akatsa da, Arratiaren orde, Amatia ipinten dau eta. Bi posta txartel horreek Bilboko Libreria Villar liburudendak editau ebazan, 52 alez osatzen zan serie baten. Areatzakoak herri horretako posta marka daroa 1907ko abenduaren 27ko datagaz eta Munichera (Alemania) bialdu zan. Aurrekaldean alemanez idatzitako testua daroa: suhinak bere amaginarrebari bialdutako mezua da, beste gauza batzuen artean urte barri ona opatuten deutso eta eleiza baten irudia bialtzen deutsala dinto.

Arratian egindako argazkia ez badaroa be, 1906. urtearen aurrekoa da —atekaldea banandu barik daroa— Arratia sailean sailkatu dan



**"Iglesia en el Valle de Arratia" posta txartelaren atzekaldea.**

tranbiari buruzko argazkia, Landa-buru Hermanas etxeak editautakoa. Eskuz idatzita honako data hau daroa: "Olaveaga-17 Julio-1904".

Liburuan azaltzen diran gainortzeko posta txartelak 1906az geroztikoak dira, atzekaldea bananduta daukie eta. Erdiak inguru 1906 eta 1920 urteen artean editau ziran. Geroagokoak dira Bizkaiko Foru Aldundiak auzo-eskolai buruz argitara-

Seminario Txikiak editautakoak, seguru asko 1940ko hamarkadakoak; eta Artes Graficas Lerchundiren seriea, 1944an argitaratua. 1950eko hamarkadakoak dira Gorbeiaiko Kuru-tzea islatzen dauana eta Foto Solen Undurragako (Zeanuri) argazki-posta txartela.

Egileak dinoanez, "egun, posta txartela bilduma-objektu bihurtu da eta, aldi berean, garai bateko paisajeak, monumentuak, eraikinak, ohiturak, janzkerak... ezagutzeko informazio ituri ikonografiko garrantzitsua da, zinea, prensa edo irudiak zabaltzeko beste sistema batzuk legez. Posta txartela, gaur egun, Internet eta kultura digitalaren bidez izugarri hedatzen ari diran sare sozialen aurrekari izateaz gain, hartu-emon postalerako baliabide hutsa baino zerbaist gehiago dala esan daiteke,



**Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratutako posta txartela. Igorreko Santa Luzia auzoko eskolea. Arratian 11 auzo-eskola sortu ebazan Bizkaiko Foru Aldundiak.**

tutakoak, 1922koak hain zuzen be; Areatzako asiloaren postala, 1926. urtearen ingurukoa da; Lemoako Burdin Hesiari buruz Gerren Museoak argitaratutakoa, 1937koa edo beranduagokoa; Areatzako bainuetxeari buruzko gehienak eta Arteako

eta garai bat islatzen eta sinbolizetan dauan benetako objektutzat jo daiteke".

Gaurkoa ulertzeko eta etorkizunean aurrerantza egiteko, garrantzitsua da iragana ezagutzera, eta liburu honek horretan lagundu gura dau.

**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Pelig. Mendiola, s/n. 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel. 609 480 839 / fax 609 490 717

**ALBERTO.** Proiektuak & Altxariak  
**SU KALDEAK** Modernoak eta gutxi egonekoak  
**WWW.MUEBLESALBERTO.COM**  
**50 urte...** ideiak eta espazioak sortzen  
**bonodekor** 20% **deskontua descuento**  
**WEB BERRIA.** www.mueblesalberto.com  
m.alberto@euskalnet.net | 944 56 79 79  
Gernika kalea 3, 48960, Galdakao (Bizkaia). www.mueblesalberto.com  
**DIRECCIÓN DE OBRAS.** Erreklamak eta Proiektuak

## MARATOI TXIKIA

## Gotzon Solaegi eta Iraia Garcia, txapeldunak

## Erredakzioa

Orain urte bi legez, Gotzon Solaegi gizonekoetan eta Iraia Garcia andrazkoetan izan dira XXXV. Arratiako Maratoi Txikian txapeldunak. Txapelak Beinat Anzola Igorreko alkateak jantzi eutsezan, eta antolakuntzakoak edade guztietako ondoen sailkatuen artean banandu ebezan garaikurrak. Bagilaren 1ean izan zan lasterketa hau.

Eguraldiak lagundu ez arren, arratiarrak ez eben lasterketa honengaz daukien urteroko zitea galdu. Izan be, asko dira urtero urtero parte hartuten dabenak, irabazleak orain bi urtekoak izateak erakusten dauan legez. Baina ez bakarrik txapeldunak, beste kategorietako atleta batzuek be saria errepikatu eben: Jokin Totoriak, Onditz Iturbek, Xabier Gonzalezek eta Jone Etxebarriak, barbarako.

Honeexek izan ziran irabazleak:

**Zeanuri-Igorre Nagusiak**

Andrak: Iraia Garcia.  
Gizonak: Gotzon Solaegi.

**Beteranoak**

Andrak: Jone Etxebarria.

Gizonak: Xabier Irazabal.

**Gazteak**

Gizonak: Xabier Gonzalez.  
Andrak: Onditz Iturbe.

**Artea-Igorre 1997tik 99ra jaiotakoak**

Neskak: Nastia Ziarsolo.  
Mutilak: Asier Trifol.

**2000tik 2001era jaiotakoak**

Neskak: Eneritz Arze.  
Mutilak: Jokin Totorika.

**Dima-Igorre 2002tik 2005era jaiotakoak 5. eta 6. maila**

Neskak: Ane Larrea.  
Mutilak: Asier Etxebarria.

**3. eta 4. maila**

Neskak: Naroa Buron.  
Mutilak: Unai Iza.

**Igorreko zirkuituak 1. eta 2. maila**

Neskak: Eider Egia.  
Mutilak: Markel Urrutia.

**Haur Hezkuntza**

Neskak: Magali Beitia.  
Mutilak: Markel Diez.



Gotzon Solaegi eta Iraia Garcia.



Koadrila bat helmugara heltzean.

## MENDIA

## Tontorra egin barik baina osorik bueltau da Txikon

## Erredakzioa

Indarrak agortuta eta bildurra pasautu Alex Txikon ia 8.500 metrora heldu zan, baina ez eban Kangchenjungaren tontorra (8.586 m) zapaldu. Denis Urubko espedizionokidea izan da oraingoan tontorra egin dauan bakarra.

"Pozik nago hartu genduan ebatziagaz, uste dot egin behar gendua egin genduala eta bizitza salbau genduala" dino Alex Txikon bere blogean. Jeitsieran, Adam Bielecki jausi egin zan, argia galdu eta 100 metro inguru irrist egin. Txikon eta Dimitri

Sinevek topau eben eta danak bizirik eta nahiko ondo jeistea lortu eben. Hurrengo egunean, Denis Urubkok, goizeko bost eta erdietan urten eta lau ordu t'erd beranduago tontorrean zan. Espedizioak beraz, lortu dau tontorra egiteko helburua, Txikon berak egin ez arren.

Lemoaztarra, maiatzaren 29an heldu zan etxera. Indarrak berreskuratu eta behatz bat zaindu egin beharko dau, "izozte sintomak" ditu eta. Hori dala eta, Diman maiatzaren 30ean emon behar eban berbaldia atzeratu egin da, bagilaren 6ra.

## NORDIC WALKING

## Areatzan Nordic Walking zentroa zabalduko dabe

## Erredakzioa

Maiatzaren 30ean, jente guztientzako Nordic Walking izeneko kirol modalidadearen aurkezpen ekitaldia egin zan Areatzan irakasle adituakaz. Kirol modalidade hau Europako iparraldeko herrialdeetan sortu zan. Mendirako diseinutako makilez egiten da, iraupen-eskiaren udako osogari lez. Areatzako zentroak zailtasun maila desbardinako lau ibilbide eskeiniko dauz.

Nordic Walking-a Europako iparraldeko herrialdeetan sortu zan 30eko hamarkadan. Diziplina honetarako diseinutako pare bat makilen eta pausu teknika baten bitartez, Nordic Walking-ak

gorputzeko goiko atala landuteko aukerea emoten dau; eta, horren ondorioz, gorputzeko giharmoltsoen % 90. Horrez gainera, martxa arruntean baino kaloria gehiago erreten badira be (% 40 gehiago), ez da hain nekagarria. Gainera, artikulazio eta hazurretako eragina eta estresa be gitxitu egiten dauz.

**Areatzan 24 km**

Areatzako Nordic Walking Zentroak zailtasun-maila desbardinako 4 ibilbide eskeiniko dauz, eta 24 kilometro dagoz seinaleztatuta. Proiektu hau Areatzako Udalak bultzatu dau eta Osakidetza laguntza ekonomikoa dauka.

Nordic Walking zentroan, ibilbideari eta teknikeari buruzko informazioa emongo da, baita papelezko eta *on line* mapak be. Ibilbideak talde teknikoak homologau dauz, eskakizun fisikoaren mailearen arabera dagoz sailkatuta eta behar besteko seinaleak jarri dira bertan.



Areatzako ibilbideetako panela.

## AIZKOREA

## Atutxa finalean

## Irati Urien

Eusko Label Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketea jokatu da hilaren 7an, Azpeitiako Izarritz pelotalekuan. Floren Nazabal, Aitzol Atutxa eta Jon Rekondo lehiatu dira final honetan. Aurtengo txapelketan bai Nazabal eta bai Atutxa zuzenean sartu dira finalerdietan, izan be eurak dira igazko lehenengoa eta bigarrena. Finalerdietan apur bat nerbio egoala aitortu dau Dimakoak, "jentea eritimoa hartuta dago eta zu finalurrekoetan sartzean zaranean lehenengo jardunaldia dan ez dakizu gorputzak zelan erantzungo deusun". Atzenean Atutxak irabazi eban Lopez eta Erasunen kontra Urduñako kanporaketan. "Aldea dago zuzenean finalerdietan egotean, baina holan ez dozu konpetizinoko eritimoa esaten dana hartuten - dino kirolariak - orduan entrenetan eta entrenetan ibilten zara baina kanporaketak beste gauza bat dira, plazan egoten zaranean beste nerbio batzuk eta beste estres bat egoten da". Orokorrean txapelketea laburra baina sensazio ondu izan da Aitzol Atutxarentzat.

Aurtengo denporaldian Mugertzagaz batera binakakoa irabaztea lortu eban dimoztarrak. Banakakoari jagoonean bigarren gelditu da atzen urte biotan. Ez ei da erreza izango irabaztea, betiko lez Floren Nazabal nafarra da faboritua eta. Halanda be sustoren bat emoten, irabazten saiatuko dala dino Atutxak, "arriak ez dauan ez dau irabazten" esakereagaz batera.

## FUTBOLA

## Euskal Kopatik kanpo

## Ainhoa Duñabeitia

Arratia Futbol Taldeko andrazkoak Euskal Kopatik kanpo geratu dira Pauldarraren kontra galdu ostean. Lehenengo norgehiagokea, joanekoa hain zuzen be, maiatzaren 18an jokatu eben etxean. Atzen emoitzea banakoa izan zan.

Hurrengo astegienean, maiatzaren 25ean Bilbon jokatu eben. Partidua oso bardinduta joan zan arren, penalti baten ondorioz kopatik kanpo geratu dira arratiarrak. Hori dala eta, agur esan behar izan deusie Euskal Kopari.

Gizoneko lehen taldeak be denporaldia amaitu dau. Amaierarete gorengo postuetan bukatzeko burrukan egon arren, ez dabe lortu play off-etarako sailkapena.

## MENDI BIZIKLETEA

# Zeberio inguruko mendietako lasterketea

### Erredakzioa

Bagilaren 8an izango da Zeberio Xtrem 2014, Zeberio BTT Mendi Bizikleta Martxea. Aurten be, ibilbide bi egongo dira aukeran; laburrak 31 km. ditu eta luzeak 43 km. Martxea goizeko 09:00etan hasiko da Ermitabari auzunean. Antolatzaileak 200 txirrindulari inguru edo gehiago espero dabez eguraldiak lagunduten badau.

Igazko ibilbide bera izan arren, noranzkoa aldatu da aurten. Ibilbide laburra egiten dabenak, Arginako auzunetik Mandoiara igongo dira, Presaldera joango dira gero Vargasetik, eta Ermitabarrin amaituko dabe. Luzea egiten dabenak, ibilbide labur osoa gehi beste 15 km. inguru egingo dabez. Murgari buelta emongo deusie, Ermitabarrin amaituteko.

Igazko irabazlea Erlantz Uriarte, Igorreko ziklistea, aurten be egongo dala dinoe antolatzaileak, eta "beste konpromisorik ez badauka", Titan Desert-en etapa bi irabazi dituan Julien Zuberok be hartuko daua parte. Baita Zeberio Joseba Nuñezek be. Eurekaz, mendiko bizikletea gustuko daben beste asko. Igaz

euria egin eban eta 110 txirrindulari neurtu ziran, aurten, eguraldiak lagundu ezker, zenbaki hori ia bikoiztea espero dabe antolatzaileak.

### Izen emotea

Izena [www.zeberioxtrem.org](http://www.zeberioxtrem.org) webgunean emon behar da. Inskripzioa baieztatu eta dorsalak batu, barriz, egunean bertan, 07:45tik 08:45era.

Zeberio Udalak, Sociedad Ciclista Ugao, Garri bikes eta Ermitabarrin antolatuten dabe hirugarrenez egiten dan bizikleta martxa hau.



Kartela.

## MENDIA

# Gorbeiatik ibilteko gida praktikoa

### Erredakzioa

Igaz, 46.016 personak bisitatu eban Gorbeia ingurua eta turistai biajea planifiketan lagunduteko Gorbeialde Landa Garapen Alkarteak eta Zuiako Kuadrillak Gorbeiatik ibilteko gida praktikoa kaleratu dabe. *Gorbeia. Turismoa euskal mendietan* titulupean, gidak lekuri ederrenak, ezinbestekoa, esperientziak, mapak, ibilbideak, gastronomia eta kultura jasoten dauz.

Turismoak gora egin dau, 2013an % 13 egin eban gora eta goranzko joera hori mantenduteko alkarlanean dabiz arlo publikoa eta pribadua. Gorbeia-remuan, 59 ostatu dagoz, 978 ohe eskeintzen dabenak eta 77 jatetxe. Gainera, jarduera asko egin daitezke bertan, Otxandio Abentura Parkeak edo Gorbeia

Central Park-ek jasoten dituanak, berbarako. "Gorbeia da natura, aire garbia, paisaje joriak, baserri bizitza, artzainak, sagardoa, txakolina eta garagardoa, Idiazabal gaztaia, txuletoia eta babarrun gorriak, Mairulegorratak eta Baltzolak haitzuloak..." dinoe Gorbeia Gune Turistikotik eta hori dana gida honetan jasoten da.

### Gorbeia Gune Turistikoa

Aurkezpena, Bingen Larizgoitia, Gorbeialdeko gerenteak, Lierni Altuna Zuiako Kuadrillako presidentea, Joseba Gartzia Hontza Extrem Otxandioko Abentura Parkeko arduradunak eta Ana Gonzalez La Casa del Patron hoteleko zuzendariak egin eban Bilbao Turismoren egoitzan. Izan be, alkarlanean ibili dira arlo publikoa eta pribadua, Gorbeia gune turistikoa bihurtuteko ahaleginean. Aurkezpen osteko barauskarrian bertako produktuak dastatzeko aukerea egon zan.

Zuiako Kuadrilla eta Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea 2010ean hasi ziran alkarlanean Gorbeia Gune Turistikoa ekimean.

## BIZIKLETEA

# Brontzezko domina ekarri dau Garrok Espainiako Txapelketatik



Oskar Garro brontzezko dominagaz.

### Erredakzioa

Oskar Garro txirrindularitza egokitutako Igorreko ziklistea Espainiako Txapelketan hartu eban parte maiatzaren 17 eta 18an. Erlojupekoan laugarren egin eban eta, 55 km.ko lasterketan brontzea lortu eban.

Sano lasterketa ona egin eban igorretarrak eta atzen momentura arte, urrea be euki eban eskura "gitxigaitik ez neban lortu 1. postua, sprintean ailagau zalako" azaldu deutso BEGITURI.

### Munduko Kopa

Pescaian (Italia) jokatu zan Munduko Kopan be hartu eban parte Oskar Garrok. Han erlojupean 30 km. egin ostean, hemeretzigarren sartu zan helmugan eta hurrengo egunean 80 km.ko karreran hamaseigarren izan zan. Lehenengo artean egon ez arren, sano ondo ibili zala dino txirrindulariak.

Igorreko Udalaren laguntzagaz joan zan Oskar Garro txirrindularitza egokitutako Munduko Kopara.

## FUTBOLA

# Futbola baino gehiago Arratia Futbol Taldeko udalekuetan

### Erredakzioa

Arratia Futbol Taldeak umeentzako udalekuak antolatu ditu, laugarrenez aurten. Oporaldian "kirola eta aisialdia euskera giro baten biziteko" aukerea emoteko helburuagaz antolatuten ditue udalekuak, eta bertan batez be futboleak, baina beste kirol batzuetan be jardungo dabe 6 urtetik gorako umeak. Bagilaren 30etik 4ra eta garagarriaren 7tik 11ra; aste bakarra edo aste bitan izango da kanpus hau Igorreko Urbieta zelaian.

Talde bi egongo dira. Bata mistoa, 5 urtetik gorakoentzat eta bestea, 12 urtetik gorako neskenentzat, "edade honetako nesken artean futbola bultzatzeko asmoz"

adierazo deutso BEGITURI Jose Mari Orbe antolatzaileak. Talde mistoan irakasleak Oier Barreneitea eta Imanol Etxezarraga izango dira, eta nesken taldean, Naia Bilbao. Izena bagilaren 13ra arte emon ahal da.

### Futbola baino gehiago

Futbola izango da ekintzarik garrantzitsuen baina beste ekintza eta kirol batzuetan be jardungo dabe parte hartzean dabenak. Izan be, egun baten Igorreko igerilekuetara joango dira, mendiko ibilaldiak egingo dabez, herri kirolak, tailerrak...

Igaz 30 ume inguruk hartu eban parte, ez bakarrik Arratiakoak, inguruetakoak be bai, Zeberio edo Zornotzakoak, hain zuzen be.

## RAID

# Gaizka Agirrek Corsica Raid-en hartuko dau parte

### Erredakzioa

Hilaren 7tik 11ra, Corsica Raid, Korsikan egiten dan nazinoarteko rally-an Arteako Gaizka Agirre egongo da. Bost eguneko iraupena dauka proba honek eta lehenengo etapak egun bi hartuten ditu, 48 ordu atseden barik. Proba gogorra da, 500 km. baino gehiago ditu eta 30.000 m.ko desnibel positiboa.

Bidea markatu barik dago eta partaideak mapa eta brujuleagaz moldatu behar dira ibilbidea topatzeko. Mendiko trekking-a, mendiko bizikletea, kanoak, eskaladea eta rappela, egin eta edurretan ibili beharko dira partaideak.

Entrenamentu moduan, atzen hiru edo lau hilabeteetan sarriago urten dala mendira, bai bizikletan, bai galapan eta piraguan be ibili dala dino Gaizka Agirrek. "As-tean hiru edo lau urtekerak egin dodaz, ikusiko dogu ia nahikoa izan dan. Helburua lasterketea amaitzea da".

### Ekipazioa inskripzioaren barne

Ekipazio osoa eta eguneroko hamaiketako inskripzio kuotaren barruan dagoz. Ekipazioari jagokonean ume bakotxari kamisetak, prakak, kaltzetinak eta sudadera emongo jako, Arratia taldeko ekipazioagaz jokatuteko.



**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**Los Chopos**  
neurritza egindako armairuak  
Avda. Los Chopos, 33 (Nagusi) Tel.: 94 430 40 94  
**Esposizioa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
[www.armariosloschopos.com](http://www.armariosloschopos.com)

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOSERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

## LEHIAKETEAK

## Gotzon Herminosillak irabazi dau Lemoako III. Narrazino Lehiaketea

## Erredakzioa

"Lapurreta inbentario" izeneko kontakizunagaz irabazi dau Gotzon Herminosillak Lemoako III. Narrazino Lehiaketea. Bigarrena, Unai Ormaetxeak eroan dau "Odeiak ttu eginiko apoez adibidez" narrazinoagaitik; hirugarren saria Joana Espartak eroan dau "Bada denpora" lanagaitik eta Lemoako lehenengo saria Unai Santosek "Garaia iritsi da" izenekoagaitik. Narrazino saritu honeek Lemoako Udalaren webgunean dagoz irakurgai.

Gotzon Herminosillak (Barakaldo, 1966) Berria egunkarian eta Radio Euskadin behar egiteaz gainera, hainbat liburu ditu kalean daborduko: *Road movie*, *Estadu Batuetan zehar egindako biaje baten kronika*, *Ramones, familia maitagarria*, rock banda honen gainekoa edo *Barakaldo revienta. Historia secreta del punk-rock en Barakaldo (1979-2010)*. Lemoako saria irabazi dauan "Lapurreta inbentarioa" izeneko narrazioan, egilea-

ren sasoi bueltako protagonisteak, bere bizitzari -baina era berean belaunaldi oso baten bizitzeari- errepasoa egiten deutso; bete ez diran ametsak, galdutako burrukak eta bizitzak egindako lapurreten inbentarioa eginaz.

## Unai Santos Lemoako lehenengo saria

Ez bakarrik Lemoan, Arratia osoan eta Arratiatik kanpo be ezaguna da Unai Santos, Larregi taldean jotzen daualako. Jo bakarrik ez, bereak dira kantu batzuen hitzak eta, aspaldi ez dala, BEGITU, 174. zenbakian Zertean sailean, berak sortutako "Denboraren altzoan" kantuaren letra atera zan. "Beti gustau egin jata idaztea, baina hau izan da lehenengo aldia lehiaketa ofizial batera aurkeztu nazana" azaldu deutso Santosek BEGITURI. "Garaia iritsi da" saritutako narrazioak, neska batek ama izateko garaia iritsi jakola pentsau eta bere bikotekidearengan honek sortzean dituan bildurrak, zalantzak eta sentimenduak kontetan dauz.

## ANTZERKIA

## Antzerkia, txotxongiloak eta bikozketea landu dabe Zugan ni programan

## Erredakzioa

Maiatzaren 18an izan zan aurtengo Zugan ni ikasturte amaierako jaia eta antzezlanen finala Zornotza Aretoan. Iurretako Institutukoak izan dira aurten irabazleak. Markeliñeren ekimen honetan, Arratia Institutuko talde bik hartzean dabe parte. Aurten, *Drogoz-en armairua* eta *Itsasargia* izan dira arratiarrak sortu eta taularatu dabezan antzezlanak.

*Itsasargia* gazteenak osotu eta izenik ez daukan taldeak egin dau. *Drogoz-en armairua*, barriz, Baga Biga Higa taldeak. Talde honen begiralea dan Ismael Pereirak aurtengo kursoaren balorazio sano ona egiten dau.

## Antzezlanak ikasleak eurak sortuten dabe, ezta?

Lanak klasean sortutako ideak egiten dira. Tutoreak be behar handia egiten dabe, baina ikasleak eurak esaten dabe bildurrezkoa, komedia edo ze jenerotako antzezlanak egin gura daben. Aurten, Baga Biga Higa taldekoak bildurrezkoa egin dabe, apur bat gatxa. Talde horretan 11 ikasle egon dira, 15 urtetik 18 urte bitartekoak.

## Beste taldekoak ze edade-takoak dira?

Edade tartea bardina da 15 urtetik 18 urtera, baina nagusienak Baga Biga Higan egon dira. Arratia Institutuan asko dira honetan parte hartu gura izaten dabenak eta talde bi dagoz.

## Antzerkiaren inguruko arlo guztietan egiten dabe lan?

Bai, gidoia, argiak... Ez da bakarrik aktore lana. Aurten bideo bat be egin dabe: antzerkia, bideoa eta txotxongiloak nahastu doguz. Ikasleak ikasi dabe txotxongiloak zelan maneja. Eurak ez agertuteko argi baltza erabilten da, argi honegaz zuria more agertzen da eta baltzez jantzita egon ezker, publikoak ez dau ikusten txotxongiloak manejetan dagoana.

Bikozketea egiten be ikasi dabe, noz sartu behar dan abotsa, eta abar. Eta bideoa egitean, kamara aurrean egin behar izan dabe. Konpletua izan da aurtengo.

## Institutua ixterakoan itxi behar izaten dabe antzer-

ki taldea be. Igazko edizinoan irabazi ondoren, igazko protagonistak esan eutsien BEGITURI zelan edo halan kolaboretan segiduteko asmoa eukiela.

Bai eta Maitane Iza laguntzaile ibili da aurten. Batzuk badagoz honerri segida emoten deutsienak, ikasi gura dabenak. Baina Euskal Herrian gatx daukie Arte Dramatikoa ikasteko, tituluak ez dagoz homologata eta. Homologatze-ko Madrilera joan behar da.

Dana dala, urtean-urtean jente gehiago apuntetan da Zugan ni taldeetara, euren artean komentetan dabelako egiten doguna.

## Zornotzan talde guztiak erakutsi eben euren lana?

Igaz talde guztiak erakutsi eben, baina aurten ez. Bederatzi talde ziran eta lanak nahiko luzeak. Igorreko talde biak bai eta pozik geratu ziran. Jentaurrean dagozanean hazi egiten dira. Gauza bat da ensaiotetan eta beste bat publikoaren aurrean antzetzea. Publikoaren aurrean beti egiten dabe hobeto, hazi egiten dira.



Ismael Pereira.

## IKASTARROAK

## UEUren udako ikastaroetan izena emoteko epea zabalik

## Erredakzioa

Hogeta hamabi ikastaro eta lau jardunaldi eskeiniko ditu aurten

Udako Euskal Unibertsitateak, (UEU) bagilaren 30etik garagarriaren 23ra bitartean. Ikastarook Eibar, Baiona eta Iruñean izango dira eta aurtengoa 42. edizino da.

Arte eta Musika, Giza Zientziak, Gizarte Zientziak, Ingeniaritza eta Teknologia arlotako ikastaroak eta lau jardunaldik osotuten dabe aurtengo eskeintzea. Izena emon daiteke ikastaroa hasi baino aste-bete lehenagora arte, [www.ueu.org](http://www.ueu.org) webgunean.

**Pinturas Arratia**  
Javi Morato  
Tel.: 628 443 992

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a 94 673 70 87  
Igorre 48140 Bizkaia 609 79 40 54

**AGOSORAK**  
basola Emaldi  
Abokatuak  
620.57.86.04  
asierabasola@hotmail.com  
Bilbao-Zeanuri

**KIRRU \* ILEAPANDEGIA**  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bago - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 631 92 00

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ ZEIB ERDARAZ  
Baitonak: A1, A, BTR, B  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnua: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garante@euskalnet.net

**ZEKUTZE**  
JATETXEA  
Sabino Arana, 24  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
zekutejartza@hotmail.com

**umean moda**  
**sem**  
Gogoratu leku barrian gagozala  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnua: 94 631 82 94 • [semoda@hotmail.com](mailto:semoda@hotmail.com)

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
**IGORRE**

**AHOLKULARITZA:**  
LEGE-LAN ARLOAN  
**ZUZENBIDE**  
ZERGA ETA DERU KONTUTAN  
ONDASUN HIGIZIEN  
ASIGURUTAN  
Sabino Arana, 3 Tfnua: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 94 61 - 48140 IGORRE

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu  
Bixarra egin eta txukunduten dogu  
Elexalde, 20 Rober 630 743 543  
48.140 Igorre Manuel 661 848 793

**axular**  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
[axularke@gmail.com](mailto:axularke@gmail.com)

**ekin s.l.**  
LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK  
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: [cbras@construccioneseekin.com](mailto:cbras@construccioneseekin.com)

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
Ikasle euskaraz zein erdaraz  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefona: 94 631 36 31 Faxa: 94 673 70 83  
e-posta: [uniozu@euskalnet.net](mailto:uniozu@euskalnet.net)

## ERAKUSKETEAK

### Gorputzen sensibilitateak erakusten dabezan pinturak Igorreko Erakusketa Aretoan

#### Erredakzioa

Bagila osoan, Rosa Calzadaren artelan bilduma barri bat egongo da ikusgai Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan. "Giza natura. Gorputzen sensibilitate eta esperientzia desbardinak" izeneko erakusketa, artistak "andrazkoak eta ez andrazkoak bakarrik, giza-kiak sufriduten daben bazterketa eta arazoaren gaineko kezka" begien bistan ipini gura dau, "inkontzientearren konzientziaren irudien bidez" egilearen berbetan.

Giza gorputza eta kezka soziala dira artista honen lan askoren ardatza, edukia emoten deutseenak Rosa Calzadaren pinturak.

Atzen urteotan askotan erakutsi dauz bere lanak Rosa Calzadaren Arratian; Igorre eta Areatzan, batez be, Igorreko



Rosa Calzadaren pintura bat.

Biziartea alkarteko partaide eta sortzaileetako bat da eta. Igorreko Biziartea alkartea, Ines Medinak Igorren emondako mintegiko partaideak sortu eben orain dala hiru bat urte euren lanak erakusteko asmoz.

#### Ibilbide luzea

Rosa Calzadak ibilbide profesional luzea egin dau pintore moduan. Hogeta hamabost urte daroaz pintura eskolak emoten Algortan, eta erakusketa asko egin ditu Euskal Herrian zein Euskal Herritik kanpo.

## EUSKAL JAIA

### Mitologia gaia hartuko dau Lemoako Euskal Jaiak

#### Erredakzioa

Hilaren 7an ospatuko dabe Euskal Jaia Lemoan. Aurtengo ekitaldi nagusia kalejirea izango da. Arrastiko seiretan izango da eta joaldun eta pertsonaje mitologikoak batera ibiliko dira lemoztarrak herrian zehar. Kale animazioa Irurtzungo Orritz Gazte Elkarteak egingo dau, euskal mitologiako pertsonajeak antzetzten.

Lemoako Euskal Jaia, eguerdian hasiko da triki poteo batez eta ondorengo herri bazkariagaz. Triki poteoa 13:00etan hasiko da Kodigo tabernan eta bazkaria Arrabin izango da 15:00etan.

Aurtengoa, Lemoako Euskal Jaiaren hirugarren edizioa da. Igaz akelarrea hartu eben gaitzat, eta aurtun, joaldunak eta mitologia. Joaldunak edo zanpantzarrak Nafarroako iparraldeko

herri inauterietako pertsonajeak, euskal mitologiako beste pertsonaje batzuek hartzean dabe parte Orritz alkartearen ikuskizunetan. Mari, Akerbeltz, Gizotso, Tartalo, Basajaun, Herensuge, Mikoltsak (iratxo bihurriak), Galtzagorriak (iratxo langileak) eta jentilak dira irudikatzen dituen pertsonajeak. Pertsonaje mitologiko honeek eskuz egindakoak dira eta adierazkortasun handia daukie, alartekoen arabera. Gainera, "pertsonaje honeek ikusleak alkar eragiten dabe, euren jolas eta bihurrikieretan partaide egiten ditue, momentu dibertigarriak sortuz. Haur eta gazteak oraindino gehiago lortzean da alkar eragina, benetako pertsonajeak dirala sinistera heltzean dira eta" dinoe Orritz-ekoak.

Kalejirea Arraibitik Elizondora joango da.

## MUSIKEA

### Orkestra musikea Areatzan

#### Erredakzioa

"Erdi eta musikatu" izenpean, Areatzako Kirol Kultur Batzordeak (AKKB) berbaldi bat eta hiru kontzertu antolatu ditu, hilaren 16, 17 eta 18rako. Berbaldia hilaren 12an izango da eta han Tomas Bernardok jardungo dau Erdi

Aroko musikearen gainean.

Kontzertuak jagokienean, hilaren 16an, perkusino, klarinete eta piano kontzertua egongo da Vicent Trio taldearen eskutik. Hirukotea, Vicent Zaragoza Llorcak perkusinoan, Javier Roldan Gamarrak klarinetea jotzen eta Patricia Miñana Esparza pianojoleak osotuten dabe. Joko dabezan piezen artean, perkusino eta klarineteko duo klasikoak, Piazzolaren tangoak eta gaur egungo piezak dagoz. Ibilbide profesional handia daukie hiru musikari honek eta orkestra eta kamara talde askogaz jo dabe.

Hurrengo egunean, Bilboko Orkestra Sinfonikoko perkusionistak eskeiniko dabe kontzertua. Narciso Gomez, Joaquin Carrascosa, Elur Arrieta eta Vicent Zaragoza egongo dira. Igaz be egon ziran Areatzan perkusionista honek eta "igazko arrakastea errepikaturan" etorriko dirala aurtun, dino Asier Garcia AKKBkoak.

Hilaren 18an, barriz, Enrique Solinis & Euskal Barrokensemble-k gitarra barrokoa, kontrabajoa eta perkusinoak joko dabe Areatzako Udal Aretoan. Solinisek disko barria atera dau eta berau aurkeztuko dau kontzertu honetan.



Bagilaren 7an izango dan Euskal Jaiko kartela.

## DUNBA

### Kultura Astea Lemoako eskolan

#### Lemoako JB Eguzkitza Meabe IPIko ikasleak

Maiatza 5 eta 11 bitartean Lemoako JB Eguzkitza Meabe ikastetxean hainbat ekintza egin doguz, Lemoako herriko beste taldeak bezala Udalak koordinatutako Kultura Astearen barruan. Xabier Olaso eta Julen Gabiria idazleak egon ziran guk irakurritako euren liburuen gainean berba egiteko. Oso ondo egon ziran gauza polit asko kontatu euskuezalako eta gure itaunak erantzun. Miren Larrea ipuin kontalaria be etorri zan eta ederto egon ginan bere kontakizunak entzuten

eta beragaz antzerkian parte hartzean.

Hirurak Keramika Taldeak prestatutako eguzkilore eskulturatxoak emon geuntsen eskerrak emetoko. Zeramika taldekoak oso ondo portatu dira gugaz egun baten klaseak amaitu ostean tailerra egin ebela eskolako patioan buztina landuteko.

Beste egun baten 5. eta 6. mailakoak Kuban senidetuta daukagun ikastetxearen inguruan prestatutako beharrak erakutsi euskuen, baita jantza eta abestia be. Munduko kulturak gogoan izateko egun baten munduko jolas desbardinak itzel ibili ginan, jolas batetik bestera pasauz. Hainbeste ensaio eta froga egin ostean, egun baten Lehen eta Bigarren Hezkuntzako guztiak hain famadua egin dan "Cup song" edalontzien jolasaren euskeraren aldeko bersinoa egin genduan. Haur Hezkuntzakoak gu ikusten eta animetan ibili ziran. Mundiala izan zan ikastetxe osoa

edalontziakaz jolastan eta euskeraren alde abesten ikustea.

Maiatzaren 9an Eneko Etxebarrieta etorri zan, bere bizikleta Faustingaz munduan zehar egin eban bira, eskolako txikerrenai antzetzeko eta nagusiei argazki zorgarriakaz kontetako. Arrastian ikaslearen emonaldia izan zan eta han

maila desbardinekook antzestu, abestu eta jantzan egin genduan. Beti legez, primeran egin genduan.

Gainera asteen zehar beste ekintza piloa egon ziran: Haur Hezkuntzakoak pertsonaje misteriotsuaren puzzlea osatu eben eta euren beharrak erakutsi, Zeramika tailerrean egon ziran egindako



piezak ikusi genduzan, Ibaialde erakusketea aztertu genduan Nahiko hezkidetza programeagaz egin doguzan beharrak be erakusgai egon ziran eskolako sarrerako "Txoko morea"n. Herriko liburategia be eskolara hurbildu zan asteen zehar eskolan egon zan eta barikuan klaseak amaitu ondoren patioan.

Astea amaitzeko zapatuan Ganabal mendi taldeagaz batera Kattiltoxa mendira joan ginan Mundakatik urtenda eta Sukarrietan amaituz. Han, bazkaldu ostean oso gustora ibili ginan hondartzan harea eta uragaz olgetan. Danetarik euki dogu Kultura Astea!



Ikasle eta gurasoak Kultura Astean.

## AGENDEA

## BAGILAK 3

## ARTEA

Mikel Deuna jubiladuen alkarteak antolatuta, bagilaren 18an Ordiziarako urtekerarako izena emoteko atzen eguna.

## BEDIA

17:00etatik 20:00etara, hilaren 13ra arte, sanjuanetan play-back-ean parte hartzeako eta txosnan lagunduteko izena emoteko epea. Liburutegian.

## IGORRE

Hilaren 30era arte, Rosa Calzadaren erakusketea Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan.

## LEMOA

Hilaren 13ra arte, bigarren eskuko azokan parte hartzeako izen emotea.

## BAGILAK 5

## AREATZA

Hilaren 30era arte, udalekuean izena emoteko epea zabalik. Udalekuean. Udalekua Lekeition. Garagarilaren 14tik 20ra. 10 eta 15 urte bitartekoentzat.

## IGORRE

15:00etan, korresponsabilidate tailerra Kultur Etxean.

## LEMOA

Ingurugiroaren Nazinoarteko Eguna dala eta, tailer berezia ludotekan.

19:00etan, II. Urigintza Jardunaldiak. Lemoa urigintza jasangarriko bidean.

## BAGILAK 6

## AREATZA

Nazinoarteko Ingurumen Eguna: birziklapen tailerrak. Parketxean.

## DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" errepresaliaduen aldeko konzentrazioa plazan.

20:00etan, Alex Txikonen berbaldia Gaztetxean.

## IGORRE

Igorreko Jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

## LEMOA

19:00etan, Joseba Riosen berbaldia

"Arlanpe kobazuloaren Historiaurreko gizakien okupazioak. Monografia zientifikoaren aurkezpena, serie bai 3". Jubiladu Etxeko goiko aretoan.

## ZEANURI

17:30ean, Kirol Eguna. Aerobic eta jantzak plazan. Ondoren, merienda.

## BAGILAK 7

## AREATZA

09:00etan, AKKB-k antolatuta, Urdaibaiko itsasadarren jeitsiera kanoan. Eleiz portikuan.

## DIMA

07:00etan, Ermiten Ibilbidea. Plazatik abiatuta.

## LEMOA

Euskal Jaia. Gaia: euskal mitologia. 13:00etan, triki poteoa Kodigo tabernatik hasita. 15:00etan, bazkaria Arraibin. 18:00etan, kalejirea joaldunak eta personaje mitologikoak, Arraibitik Elizondora, Orritz Gazte Elkartearen eskutik.

## ZEBERIO

Alboka eguna. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

## BAGILAK 8

## ZEBERIO

09:00etan, Zeberio Xtrem. Ermitabarrin.

## BAGILAK 9

## ZEANURI

09:00etan, III. Enpresen arteko topaketea. Zulaibar Ikastegian.

## BAGILAK 10

## LEMOA

Hilaren 19ra arte, 2014-2015 ikasturteko Informatika eta mekanografia ikastarorako izena emoteko epea zabalik. Liburutegiko informatika gelan.

11:00etatik 14:00etara, hilaren 20ra arte, jubiladuen biajeen izena emoteko epea. Udaltzeko Kultura Zerbitzuan.

## BAGILAK 12

## AREATZA

19:00etan, Tomas Bernardoren berbaldia "La musica en el barroco y en el renacimiento".

Udal Aretoan.

## IGORRE

Jubiladuen Galiziarako biajeen izena emoteko atzen eguna. Biajea hilaren 21etik 26ra.

## LEMOA

19:00etan, II. Urigintza Jardunaldiak. Herri inklusiboa: Genero ikuspegia urigintzan bertatzeko gakoak.

## BAGILAK 13

## AREATZA

18:00etan, Areatzako Emakume Foroak antolatuta, literatur tertulia, Kathleen Winter-en *Annabel* liburua komentauko da, Isa Castillok gidatuta. Foroko gelan.

20:00etan, Lamino Mendi Taldeak antolatuta, gaueko igoerea Gorbeira (1.481 m.). Hiru

Handien partaideak animetako.

## IGORRE

Arratia Futbol Taldeko udalekuean izena emoteko atzen eguna.

## LEMOA

19:30ean, "Harro bizi euskeraz Lemoan" bideokliparen *making off-a*. Elizondo Kultur Gunean.

20:00etan, Lemoako Korak antolatuta, kantu-pote Lemoako Alkartetxe tabernatik abiatuta. Ibilbidea: Lemoako Alkartetxea, Txoane eta Abxeta.

## ZEBERIO

Ermitabarriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

## BAGILAK 14

## DIMA

06:00etan oinez Urkiolara errogatibea. Plazatik urtenda.

## LEMOA

10:00etatik 14:00etara, Lemoako Udak antolatuta, Bigarren Eskuko Azoketa. Elizondon.

## ZEANURI

07:30ean, Urkiolara oinez errogatibea. Plazatik urtenda.

## BAGILAK 15

## BEDIA

Ganguren Mendi Taldeak antolatuta, urtekera Bizkaiko Bira (XVII). Orozko-Ubide. Odoriaga (1.245 m.)-Arralde (945 m.).

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta urtekera, deidar mendiak: Ganekogorta (999 m.).

## BAGILAK 16

## AREATZA

AKKB antolatuta "Erdu eta musikatu". Vicent Trio perkusino, klarinete eta piano kontzertua.

## BEDIA

Batzarrak liburutegian: 17:00etan, Txiki Txoko; 18:00etan, udalekuak; 19:00etan, Uda gaztea; 19:30ean, ingelesa mintza praktika.

## DIMA

17:00etan, sendabedarren oinarrizko ikastaroa. Ezagutza, propietadeak eta erabilpena.



## Jose Mari Agirretxek, "Porrotx"ek, berbaldia emongo dau Lemoan

Hilaren 17an, martitzenean, arrastiko 19:00etan, "Bere sentimentu, bere pentsakera eta bere bizipenak" izeneko berbaldia emongo dau Jose Mari Agirretxek, "Porrotx"ek, Jubiladu Etxeko aretoan. Udak antolatutako berbaldia, guraso, hezitzaile eta gaztetxoak zuzenduta dago eta bere helburua heziketa ez formalaren garrantzia azpimarratzea da.

Jose Mari Agirretxek, Aiora Zulaikak eta Mertxe Rodriguezek, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo taldea osotuten dabe.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## SALGAI

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

## AUTOA SALGAI

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai, 10 urte. 104.000 Km. Interesdunak 94 631 79 06 telefonora deitu (Iñigo).

## HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA

## SALGAI

Lur Hiztegi Entziklopedikoko 10 tomo salgai, egoera onean, barriak legez. Interesdunak idatzi mezu bat e-mail honetara: l\_laztana@hotmail.com.

## FURGONETEA SALGAI

Nissan Primastar 2000dci 115 zaldidun furgonetea saltzean dogu, kanpinerako prestata. 2009 urtekoa 120.000 km. Carry bike eta toloa daukaz. Telefonoak: 629 624 688 eta 637 861 936.

## EROSI

## TRIKITIXEA EROSIKO NEUKE

Trikitixa esku soinua erosiko neuke. 653

716 691 (Jon Andoni) telefonora deitu.

## DANERIK

## TRASTELEKU BILA

Trasteleku bila nabil. Merkea, 30 euro inguru. Interesdunak deitu 656 742 768 (Bego) telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1 Axpe Goikoak emondako txakolin kutxatxo.**

Beinat Anzola (Igorre)



**2 Gorbeia Suzienek emondako kamiseta bana.**

Gotzone Amuriza (Igorre)  
Juanma Labandibar (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan

sartuko zara.

BEGITUK 11

urte eta

ehundaka

lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Logela. 2.- Alaitasuna. Oxigenoa.  
3.- Operazioa. 4.- Min daukagunean.  
la nabari ez dana. 5.- Bigarren bokala.  
Niobioaren sinboloa. Gixi falta.  
6.- Eguzkiaren jainkoa. Amerizioa.  
Boroa. 7.- Mozte. 8.- Bat erromatar.  
Gizonezkoen izena. 9.- Ulua.

### GOITIK BEHERA

1.- Erromatar mitologian Saturnoren  
emaztea. Baita. Bokala. 2.- Bai zera!  
Trebe. 3.- Itsusi. Bokala. Bokala.  
4.- Tik..., erlojuaren hotsa. Bakotx.  
5.- Bokala. Einsteinioa. Muna.  
6.- Algodoi. Persona izenordain  
indartua. 7.- Erdiko bokala. Neurrian.

9	A	L	A	V	A	U
8	I	A	G	E	R	
7	B	A	K	U	N	E
6	R	A	M	A	V	B
5	A	N	B	I	A	
4	A	I	S	O	R	
3	E	B	A	K	E	T
2	P	O	Z	A	O	
1	O	H	E	T	O	K
1	2	3	4	5	6	7

Topau zazpi insekturen izenak.

Z	A	G	U	R	A	T	E	D	A
I	M	A	I	R	R	U	N	I	Z
R	E	I	K	A	L	O	T	X	A
U	S	P	A	I	Z	A	X	T	U
N	G	U	A	A	I	J	I	A	R
E	S	R	G	O	L	E	M	I	B
K	E	T	A	D	O	M	E	Z	I
O	T	A	I	R	K	E	L	A	N
K	A	R	K	A	R	O	E	Z	O
U	S	G	A	L	I	Z	T	A	D
T	X	I	E	A	L	T	A	N	O
R	I	A	Z	K	O	G	E	M	E
O	Z	T	R	A	B	A	Y	R	U
K	A	L	A	K	T	X	A	L	A
A	S	I	T	S	A	J	E	O	P

# AKI MI KO

Igor Menika



Zugaitik **BEGITU**ten dogu  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

**bbk**

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B · 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**Gure Ikastetxeak**  
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikoa

- Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
- Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea
- Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**  
Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igorre
- Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zirkloak

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak  
Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk  
bi zentro ditu  
**Fisioterapia Zentroa Igorre**  
Elexalde 4  
Telefonia 94 631 55 08  
**Andra Mari Klinika**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1 Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64  
[www.bizkaifisios.com](http://www.bizkaifisios.com)

## JOSE LUIS ARRIZABALAGA "ARRI" ETA LUIS MARI URIARTE "LARRA"

### 35 urte beharrean

Erez esaten da baina Arratiako Maratoi Txikiak XXXV. edizinoan izan dau aurtengoa. Horrenbeste urte daroaz Luis Mari Uriarte "Larra" k antolakuntzan. Jose Luis Arrizabalaga "Arri" k be ez daroaz askoz gixiago. Prest dagoz beharri ekiteko baina gustura hartuko leukie errelebo bariaren laguntasuna. Hamaikatxo kalentura eta abenturaren artean, banaka batzuk kontau deusiez BEGURI.

#### Irati Urien

#### Zein da zuen loturea maratoiagaz?

**Luis Mari Uriarte:** Nirea antolatzaile mailakoa da. Hasikeratik nago antolakuntzan, hogeta hamabost urte daroadaz. Arteako guraso alkatereagaz hasi nintzan. Gero, ikasleak institutura pasau ziranean, Arteako eskolako guraso alkaterekoak eta Igorreko guraso alkaterekoak hasi ginan alkarregaz antolatuten.

**Jose Luis Arrizabalaga:** Ni Arratiako Maratoi Txikia sortu eta hamaika urtera sartu nintzan bertan. Alabak eskolara hasi ziranean guraso alkaterekoak zezor egin behar zan eta hortik segiduan sartu nintzan honetan.

#### Zer dala eta maratoi bat?

**LM.U.:** Hareetan denporetan modan ipinten hasi ziran herri krosak. Arratian ez egoan ezer eta guraso alkatereak holako ekintzaren bat bultzatu behar zala pentsau eban. Hortik sortu zan, eta hogeta hamabost urte egin doguz.

**J.L.A.:** Nahiko boom handia egon zan modalidade honetan. Ordura arte baegoan galapan egiten eban jentea baina ez hainbeste.

#### Akorduan daukazue lehenengo edizinoan?

**J.L.A.:** Nik bai, baina orduan ez nengoan antolakuntza barruan.

**LM.U.:** Bai. Dimatik Zulaibarko eskolara izan zan. Horixe zan hasierako eta lehenengo ibilbidea. Hasikera haretan

ez zan eskola guztietara deialdirik egin orain egiten dan moduan, horretan gero hasi ginan. Arteako eskolan berrehun eta piku ikasle egoazan, izan be Arratiako ikastola piloto moduan sortu zan eta horrenbeste ikasle egoazan. Eurak hartu eban parte gehien bat.

**J.L.A.:** Lehenengo haretan jentek oinez be egin eban maratoia. Maratoia, martxea... danerik izan zan.

#### Zenbat zagoze antolakuntzan? Badaukazue erreleborik?

**J.L.A.:** Ez, ez daukagu erreleborik. Zortzi bat gagoz.

**LM.U.:** Betikoak gara. Atzenengo, institutuko guraso alkatetik sartu ziran bi. Gehienak lehenagokoak dira, Arteakoak. Gixien daroan be, hamaika urte eroango ditu.

#### Hogeta hamabost urte honeetako parte hartzearen ze balorazino egiten dozue?

**J.L.A.:** Gixienez ni hasi nintzanetik hona nahiko erregularra. Urte batzuetan gehitxoago, beste batzuetan gixitxoago. Bagilan mila lasterketa dagoz. Esait-ek be urte askoan egin dau batera, eta guk astebete aldatu eta eurak be astebete aldatu... Holako gauzak pasau dira.

#### Zenbatak hartuten dabe parte?

**J.L.A.:** Umeak eta amek... 350 inguru.

#### Esan leike jentek apurtauta daukan egunetako bat dala?

**LM.U.:** Bai. Atzenengo hamabost

urteotan gixi gorabehera mantenidu egin da eguna. Urteak joan urteak etorri, bardinak izaten dira.

#### Bizirik dago orduan.

**J.L.A.:** Bai, bai.

**LM.U.:** Zeanuritik 150 urtetan dira gixi gorabehera. Kopuru polita da.

#### Parte hartzaileak nongoak dira?

**J.L.A.:** Gehien bat Arratiatik kanpokoak.

**LM.U.:** Atzenengo 4-5 urtean Arratiako jente kopurua nahiko igon da.

**J.L.A.:** Lehen Igorreko jaietako egitarauan egiten zan. Eta klaro, han ibili ezkeru domekan ezin da galapan egin.

**LM.U.:** Horixe pasau zan urte batzuetan, gero eurak eskatu eban programatik aterateko. Horregaitik egiten da orain lehenengo astean.

**J.L.A.:** Ibilaldia be inguru horretan izaten da, orduan zuk apur bat kanbiau egin behar dozu.

#### Ez dakianarentzat, zeintzuk dira momentu honetako ibilbideak?

**LM.U.:** Batetik, umeentzako ibilbidea dago, eskolaurretik bigarren mailara arte. Honeek, Igorreko eskola inguruan 700 metroko zirkuitua egiten dabe eta baimena emoten dogu gurasoak eurekaz parte hartuteko. Bestetik, hirugarren mailatik seigarren mailara arteko gaztetxoak Dimatik Igorrerera hiru kilometro egiten dabez. Gero 13-17 urte bitartekoak Arteatik Igorrerera egiten dabe. Errekoridu nagusia hamazortzi urtetik gorakoentzat da eta Zeanuritik urtetan da.

#### Errekorrik badago?

**LM.U.:** Ez. Ez deusagu errekorri inportantziarik emoten. Helburua ez da hori, egundo be ez dogu emon sari bereziak errekorren inguruan.

**J.L.A.:** Zaharrenari bai, emoten deusagu. Laurogeta piku urtekoak be egin izan dabe maratoia.

**LM.U.:** Hogeita hamargarrenean sari berezi bat emon geuntsan Obako Satur Bemaolari, ordura arteko danetan parte hartu ebalako.

#### Egin dozue galapan inoz?

**J.L.A.:** Nik 8-9 bider bai.

**LM.U.:** Nik ez, inoz be ez.

#### Noz hasten zarie prestatuten?

**LM.U.:** Hiru-lau hilabete lehenago hasten gara, urtaila-zezeila partean.

**J.L.A.:** Data urte bete lehenago ipinten dogu oster, exijidu egiten deuskue.

**LM.U.:** Errepide nazionaletik pase-tan danez ariskua dago baimenik ez emoteko. Orain federazioan demigor emon behar dogu eta holan gixienez ziurtatuta daukagu Ertzaintzaren bai-



mena eukiko dogula eta ertzainak eurak be etorriko dirala. Beti kil-kolo ibiltzen ginan lehen, dingilizka.

**J.L.A.:** Bai, bai. Hiru edo lau urtetan pasau jaku egunean suspendiduta euki eta barikuan baimena emotea. Baina batetik bestera ibilita, ordu asko sartuta: beharretik urten, federazinora joan, ertzainengana joan... Momentu honetan inertziagaz egiten dogu Maratoi Txikia. Bakotzak badaki zer egin behar dauan. Tragu bat hartuaz batzartuten gara. Bannaduta dagoz lan guztiak.

#### Erreleborik ez dagoala dinozue, zelan ikusten dozue etorkizuna?

**LM.U.:** Gure idea da ia Arratia mailan Maratoi Txikia egin gura dauan talde bat sortuten dan eta guk urte pare baten laguntasuna eskeini, gero eurak jarraipena emoteko.

**J.L.A.:** Arazoa da hartuten dauan talde horrek errentabilitatea atera gura izatea. Guk ateraten dogun guztia, kamiseta, trofeo eta umeentzako hamaretakoetan emoten dogu.

#### Hainbeste urtean ibilita anekdotaren bat eukiko dozue ba.

**LM.U.:** Hasikeran Gubernu Zibilera eskatu behar izaten zan baimena, Guardia Zibilak izaten ziran trafikokoak. Geroago Ertzaintza sortu zanean bietan eskatu behar genduan, biak exijiduten euskuen eta. Orduan bien artean kompetentzia sortu zan eta hasarreak euki ebezan Zulaibarren.

**J.L.A.:** Orain hiru urte irabazi eban persionea desagertu egin jakun, marxau egin zan. Danok handik eta hemetik topetan ibili ginan saria emoteko, eta inon ez zan agertuten. Gero jakin genduan umea euki ebal gaubean eta ospitalera joan zala segiduan. Beste baten, orain urte asko, neska bat mutilen klasifikazioan sartu genduan

ixureagaz erratuta.

#### Besteak beste boluntarioen baimena be euki dozue, ezta?

**LM.U.:** Bai, bai. Eskerrak eurei. Egunean berean lagunduten deuskue batez be. Udak, enpresa eta merkatarien laguntza be eukiten dogu.

**J.L.A.:** Ertzainak esaten deusue bidekurutze guztiak zeuk jagon behar dozuzala. Ni aurretik noa, nire atzetik bizikletak eta motorrak joaten dira. Orduan bidekurutze baten inor ez dagoala ikusten dodanean eurei esaten deusue eta bidekurutze hori egiten geldituten dira. Bat, bi edo hiru egoten dira bidekurutzearen arabera. Gidatuteko baimena euki behar dabe.

**LM.U.:** Ertzaintzak exijidu egiten dau bidekurutze bakotxean nor dagoan jakitea. Boluntarioak bai inskripzioak eta bai klasifikazioak egiten dabez.

#### Zer da zuentzat Maratoi Txikia?

**J.L.A.:** Niretzat dana. Ikastolan Arratiako jentearentzako ekitaldi bat egitea da, non Arratiako gero eta gehiago dagozan... Sano gratifikantea da. Etorren diranak eta ezagututen dabanak modelo moduan ipini dabe hau. Beti esaten deusue gixienez 14-15 euro kobrua behar geunkezala, eta guk horregaz nahikoa daukagula erantzuten deusue. Jentea pozik egon daiten egiten dogu, ez dirua aterateko. Ordainduten dabena zezor sinbolikoa da. Prezioak 2, 3 eta 5 euro dira.

**LM.U.:** Niretzako, atzen baten, ekintza kultural bat da, garrantzia umeen parte hartzean daukana.

#### Barreak, hasarreak... zenbat sentimendu?

**LM.U.:** Hasarratu be bai. Momentuko hasarreak tensioagatik eta izaten dira.

**J.L.A.:** Ez gagoz batera kasualidadez.

## San Antonio JAIK 2014

[www.arratia-merkatariak.com](http://www.arratia-merkatariak.com)

13an - TXU-TXU TRENA

105 APARKALEKUAN/GARBE

11:00etatik - 14:00etara  
16:00etatik - 19:00etara

13an - MANOPLAK OPARITUKO DIRA

Txapelketa gastronomikoetako partehartzaileentzako  
(amaitu arte)

Jai zoriontsuak opa deusueguz !!!

15ean - JAI HANDIA KULTUR ETXEAN

19:30

JOKALDI

IGORREN EROSI